



eskoriatzako  
udala

euskara zerbitzua

# **ESKORIATZAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA**

## **2024/2027**

### **VII. PLANGINTZALDIA**



# AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
2.- LEGE-TESTUINGURUA.....	4
3.- ESKORIATZAKO UDALA : EZAUGARRIAK.....	6
4.- METODOLOGIA ETA PROZEDURA.....	8
5.- DIAGNOSTIKOA.....	10
6.- 2024-2027: ERABILERA-PLAN ESTRATEGIKOA.....	12
7.- PLANA KUDEATZEKO EGITURA.....	25

## ERANSKINAK:

1. ERANSKINA: LANPOSTU ZERRENDA.....	28
2. ERANSKINA: KEMEN markoa.....	31
3. ERANSKINA: UDALAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.....	34
4. ERANSKINA: 2024-2025 KUDEAKETA PLANA.....	51



# 1

## SARRERA

Dokumentu honen **helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen Eskoriatzako Udalean, eta zer pauso eman behar diren erabilera indartu eta areagotzeko**. Horrez gain, Udalak aurrerantzean erabiliko dituen **hizkuntza-irizpideak** ere jaso dira dokumentuan, eranskin gisa.

Erabilera-planak kudeatzeko HPSk proposatutako metodologia eta aplikazio berriak tarteko, atzeratu egin dira planaren lanketa eta onarpena, eta, azkenean, bat egin du 86/1997 dekretua ordeztu duen 19/2024 dekretu berriarekin. Beraz, aukera izan dugu helburuak eta irizpideak legeria berriaren arabera eguneratzeko.

2023-2027 plangintzaldirako balio du dokumentu honek eta, 2 urteko kudeaketa-planak egingo zaizkio, hemen zehaztutako helburuak betetzeko ekintzak definitzeko.

Gaur egungo egoeraren ebaluazioa egiteko, udal-langileen eta erakundearen ekarpenak jaso dira eta, abiapuntu horrekin, helburu orokor batzuk zehaztu. Hala ere, plan estrategiko hau etengabe aberastu eta egokitu beharko dugu, elkarlanean.



# 2

## LEGE-TESTUINGURUA

EAEko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakidunak, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-aginteei hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu.

Legearen 14. atalak aurreikusten du, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko langileak arian-arian euskaldundu behar direla eta zehaztu behar dela zein lanpostutan den nahitaezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea.

Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legea** onartu zen, eta hori garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri- administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko arauak onartu zituen. Arau horiek izan ziren herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko lehen plangintzaldiaren oinarria (1990-1995).

Bigarren plangintzaldia, berriz, apirilaren 15eko **86/1997 dekretuak** arautu zuen, eta elementu berriak erantsi zizkien lehenengo plangintzaldiko arauari, bereziki erabilera sustatu behararen inguruan. Horrela, dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak zehaztu zituen 18. atalean.

Ibilbide horretan, aipamen berezia behar duten beste bi lege-arau ditugu: **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa**, «Udalen Legea» gisa ezagutzen dena, eta hura garatzen duen **179/2019 dekretua**, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Bi lege-arau horiek irizpideak ematen dituzte euskararen erabilera arautzeko eta norabide argi bat ezartzen diote udal-administrazioari, euskara gero eta gehiago erabiltzeko.

Bukatzeko, aurrean bertan onartu den **19/2024 Dekretua** aipatuko dugu, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa, aurrez aipatu dugun 86/1997 dekretua ordeztu baitu eta, aurrerantzean, horrek markatuko baitu herri-erakundeetako hizkuntza- plangintzaren norabidea.

Lege horiek guztiek ezarritakoari jarraituz, Eskoriatzako Udalak, 90eko hamarkadan, euskalduntze- eta alfabetatze-bidean jarri zituen udal-langileak, bakoitzari bete beharreko maila ezarriz eta epe bat jarritz hura betearazteko. Eta urte batzuk geroago, 2001ean, bere lehen Euskararen Erabilera Plana onartu zuen.



Harrezkeroztik, unean uneko lege-arauetan oinarrituta, Eskoriatzako Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak idatzi eta onartu ditu plangintzaldiz plangintzaldi eta, plan horien bidez, aurrerabide nabarmena egin du euskararen normalizazioan: euskarako klaseak eta trebakuntza saioak antolatu ditu langileentzat, hizkuntza-eskakizunak ezarri ditu, eguneroko jardunerako hizkuntza-irizpideak landu eta aplikatu ditu...Egindako ahalegin handi horri esker Eskoriatzako Udalean, gaur egun, euskara, herritarrei zerbitzu emateko hizkuntza izateaz gain, barruko lan hizkuntza ere bada.

Azken urteotan kudeaketak hartu du gero eta pisu handiagoa, eta hori izango da, hain zuzen, 7. plangintzaldirako erronka nagusia: planaren kudeaketan aurrerapausoak eman eta arduradun politiko eta teknikoek lidergoa hartzea zeregin horretan, jarrera proaktiboa erakutsiz.



# 3

## ESKORIATZAKO UDALA: EZAUGARRIAK

### Derrigortasun-indizea

19/2024 Dekretuaren 25. artikuluan, erakundeak nahitaez bete beharreko derrigortasun- indizea ezartzen da. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da, honako formula honen bidez:

$$\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$$

Horren arabera, eta 2021eko datu soziolinguistiko ofizialak kontuan hartuta (2022/11/14ko EHAAn argitaratuak), %68,26koa da Eskoriatzako Udalak 7. plangintzaldi honetan bete beharreko indizea:

2 urte eta gehiagoko biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
4.083	2.431	59,54	712	17,44	940	23,02
$\%59,54 + (\%17,44 / 2) = \%68,26$						

Dekretuari jarraituz, indize horren arabera erabakitzen da udal plantillako zenbat lanpostutan izango den derrigorrezkoa hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Eskoriatzako Udalaren kasuan, lanpostuen %68k, gutxienez, izan beharko dute ezarrita hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun-data bat.

Udalaren lanpostu zerrenda aztertuz gero (ikusi 1. eranskina), ikusten da Eskoriatzako Udala derrigorrezko indizearen gainetik dabilela derrigortasun daten ezarpenari dagokionez. Hona hemen datuak:

Eskoriatzako Udalaren <b>derrigortasun indizea:</b>	<b>68,26</b>	Lanpostu kopurua: 31
<b>Derrigortasun indizearen ezarpen maila:</b> (derrigortasun-data ezarrita duten lanpostuen ehunekoa)	<b>%96,5</b>	29* lanpostutik 28k
Derrigorrezko hizkuntza eskakizunen <b>egiaztatze maila</b>	<b>%88,8</b>	27** lanpostutik 24k

\*19/2024 Dekretuaren 32.4 artikuluari jarraituz, derrigortasun-indizearen betetze maila kalkulatzeko kanpoan utzi ditugu Euskara zerbitzuko 2 lanpostuak, hizkuntza-normalizazioko prozesuarekin lotuta daudelako.

\*\* Lanpostu bat hutsik dagoenez, derrigorrezko hizkuntza eskaizuna dutenak 27 dira.



Hizkuntza maila egiaztatzeari dagokionez ere, ona da egoera: 3 dira derrigortasun-data ezarrita izan arren, lanpostuari dagokiona baino maila baxuagoa egiaztatu duten langileak, baina esan beharra dago horietako 2k 3HE egiaztatuta dutela (idazkari-kontuhartzaileak eta obra publikoetako udal ingeniari teknikoak), eta hirugarrenak 2HE (kultura eta kiroletako laguntzaileak). Aken horrek, gainera, plangintzaldi honetan hartuko du erretiroa.

### **Euskarazko administrazio-unitateak**

19/2024 dekretuko 17. artikuluko 6. puntuaren arabera, entitateak euskarazko administrazio- unitateak izendatu ahal izango ditu plan estrategikoan.

Euskarazko administrazio-unitate izateko baldintza hau bete behar da: lanpostuen % 80ak gutxienez (arduraduna barne) egiaztatuta izatea lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa.

Unitate horiek nagusiki euskaraz beteko dituzte beren eginkizunak, entitate bakoitzaren plan estrategikoak ezartzen duenari jarraituz.

Hori kontuan hartuta, Eskoriatzako Udalean ondorengo sailak izendatu ditugu euskarazko unitate: Herritarren segurtasuna, Euskara, Kultura eta jaiak, Gizarte, Garapena, Gazteria eta Informatika.

Ondorioz, unitate eta lanpostu horietan euskara, zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izango da; hau da, agirien sorburu-hizkuntza euskara izango da, baita lehen hizkuntza ere jendaurreko harremanetan eta unitatearen gainerako zereginetan ere.



# 4

## METODOLOGIA ETA PROZEDURA

Plan estrategiko hau egiteko Eusko Jaurlaritzak 7. plangintzaldirako proposatutako metodologia erabili dugu: KEMEN. Laguntza-taula bat da KEMEN, Udalean hizkuntzaren presentzia, erabilera eta kudeaketa nolakoa den modu eskematiko eta ordenatuan adierazteko aukera ematen duena.

Metodologia honek bi ardatz nagusi ditu, KUDEAKETA eta ERABILERA, eta honako hauek dira bere ezaugarri nagusiak:

- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.
- Zeharkakotasuna erronka gisa.

KEMENek bi ardatz horiei dagozkien 48 adierazle ebaluatzeko euskarriak eta azalpenak eskaintzen ditu: 20 kudeaketa ardatzerako, eta gainontzeko 28ak erabileraren ardatzerako (ikus 2. eranskina). Adierazle horietatik guztietatik 14 derrigorrez neurtu beharrekoak dira. Horiek AGINTE TAULA edo PANELA osatzen dute, eta 2024an indarrean sartu den 19/2024 dekretuak agindutakoari jarraiki, Udalak adierazle horien inguruko informazioa eman beharko dio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Horrez gain, Jaurlaritzak aplikazio informatiko bat jarri du udalon eskura, **SAREGIN** izeneko, eta horren bidez, 2024. urtearen hasieran Eskoriatzako Udalean euskararen erabilera nola kudeatzen den erakusten duen argazki bat lortu dugu.

Datu horiek lortzeko bi galdetegi erabili dira:

- Erakundearen galdetegia: Hizkuntza normalizatzaileak lankide eta arduradun batzuen laguntzaz betetakoa. Galdera batzuei pertzepzioz erantzun zaie eta beste batzuetan lagin edo behaketa bidez.
- Langileen galdetegia: Udalean 30 langile daude, eta horietatik 24k erantzun diote galdetegiri. Langileek euren pertzepzioaren arabera bete dute, inolako datu-bilketarik egin gabe.





Prozedurarekin bukatzeko, eta udalbatzarrera eraman aurretik, Erabilera-plana Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidaliko da, bere aginduzko txostena egin dezan.

Udalbatzarrean, Erabilera Planari ez ezik onarpena emango zaie Udalaren Hizkuntza irizpideei eta 2024/2025 Kudeaketa Planari ere (ikusi 3. eta 4. eranskinak), eta Bilkura horretan bertan, eratuta geratuko da planaren jarraipenaz arduratuko den Talde Eragilea.

Guztia onartu ondoren, udalaren webgunean argitaratuko da.



# 5

## DIAGNOSTIKOA

Udalaren gaur egungo egoera aztertzeko, 2024ko maiatzean galdetegi bidez bildutako datuak erabili ditugu. Horrez gain, Euskara Zerbitzuak behaketa bidez bildutakoak ere jaso dira.

Aurretik aipatu dugun moduan, KEMEN markoa erabili da 7. plangintzaldirako ebaluazioa egiteko, eta horixe izan da plan berria zehazteko oinarria ere. Marko horrek hizkuntzen erabilera kudeatzeko ardatzak, eremuak eta arloak jasotzen ditu, eta baita horien neurketa ahalbidetzen duten adierazleak ere, horretarako euskarri eta azalpenekin batera.

Metodologia honek lehentasunezko tokia aitortzen dio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Kudeaketa, hala ere, helburua baino gehiago, eragiteko palanka da, hain zuzen ere, erabileran eragitekoa. Horregatik, kudeaketa-adierazleak jaso dira euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...

Eskoriatzako Udalaren ebaluazioa egiterakoan, Talde Teknikoaren erabakiz, ez dira neurtu KEMEN markoko arlo guztiak, eta ezta adierazle guztiak ere.

Kanpoan utzi diren arloak hauek dira:

- Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa:  
Arlo honi dagokionez, esan beharra dago udal lanpostu guztietan bereizgarriak jarrita daudela langileek euskaraz dakitela adierazteko herritarrei, eta Udalak parte hartzen duela normalizazio alorreko ezagutza jasotzeko ekimenetan (Udal<>ekin, AriGara,...). Plangintzaldi honetan ez da besterik egitea aurreikusten.
- Irudia:  
Nahiko landuta dugun arloa da, eta ez dugu denbora gehiago eskaintzeko beharrik ikusten.
- Prestakuntza:  
Plangintzaldi honetan ez da arlo honetan eragitea aurreikusten.

Eta adierazleei dagokienez, KEMEN osatzen duten 48 adierazleetatik 31 baino ez dira neurtu: Aginte Panela osatzen duten 14 adierazleak eta plangintzaldirako estrategikotzat jo diren beste 17 adierazle.

Aukeratutako adierazle horiek neurtzeko galdetegiak bete dituzte udal-langileek eta Euskara zerbitzuak, eta erantzunak SAREGIN aplikazioan sartu eta gero, emaitza nagusi hauek eman ditu neurtu diren 2 ardatzetan eta 10 alorretan:



<b>1. KUDEAKETA</b>	<b>% 39,6</b>
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	% 0,0
1.0.2 LIDERGOA	% 37,5
1.0.3 LANGILEAK	% 84,9
1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA	% 87,5
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Ez da neurtu
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK	% 66,2
<b>2. ERABILERA</b>	<b>% 67,6</b>
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA	<b>% 68,1</b>
2.1.1 IRUDIA	Ez da neurtu
2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	% 85,2
2.2 LAN-HIZKUNTZA	<b>% 67,3</b>
2.2.1 BARNE-HARREMANAK	% 75,1
2.2.2 KANPO-HARREMANAK	% 89,7
2.2.3 PRESTAKUNTZA	Ez da neurtu
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	% 80,4
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	% 73,9
<b>EBALUAZIO OROKORRA</b>	<b>% 59,2</b>

Lortutako ehuneko horiek KEMEN markoak egiten duen ponderazioaren emaitza dira (ikus 2. eranskina).

Ebaluazio orokorreko ehunekoak esan nahi du 1.000 puntu posibletik 592 puntu lortu dituela Eskoriatzako Udalak. Puntuazioa baxua da, inondik ere, baina kontuan izan behar da ez direla arlo eta adierazle guztiak neurtu, eta horrek eragin zuzena duela emaitzetan. Izan ere, neurtu ez ditugun arloak kenduta, lortu daitekeen puntuaziorik altuena 839 puntu dira, eta hori kontuan izanez gero, ebaluazio orokorrean benetan lortutako emaitza %70,5ekoa litzateke.

#### Ondorio nagusiak:

- Inolako zalantzarik gabe, kudeaketa da plangintzaldi honetarako erronka nagusia, batez ere Erabilera Planari jarraipena egiteko prozedurari dagokionean.
- Erabilerrari dagokionez, berriz, egoera nahiko ona da: ezagutza -maila nahiko altua da eta, orokorrean, langileek normaltasunez erabiltzen dute euskara, bai zerbitzua ematerakoan, bai barruko lanetan. Egoera, gainera, nahiko egonkortuta dago. Izatekotan, aldaketa iturri nagusia jubilazioetatik etor daiteke. Beraz, arreta berezia jarri beharko da langile berriak kontratatzerakoan.
- Dena dela, aurrera begira, garrantzitsua da zerbitzua erabat euskaraz eskaintzeko baldintzak zaintzea: euskara lehenestea, harremana euskaraz nahi duten herritarrei zerbitzua beti hala ematea, hizkera egokia eta ulertteraza erabiltzea, eta langileek jarrera proaktiboa izatea herritarrei euskararen erabileraren aldeko eskaintza egiteko.



# 6

## 2024-2027

## ERABILERA-PLAN

## ESTRATEGIKOA

Jarraian, Eskoriatzako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023-2027 zehazten da (VII. Plangintzaldikoa).

Aurretik aipatu den bezala, Eusko Jaurlaritzak proposatutako SAREGIN aplikazio informatikoa erabili da datuak ustiatzeko. Tresna horren bitartez, hasierako diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibotik abiatuta, plangintzaldi bukaerako prospekzioa ere egin da, hau da, Udalak bere buruari 2027rako jartzen dion helburua (neurtu ditugun alorren arabera puntuazio orokorra %59,2etik %70era igotzea).

Beraz, jarraian aurkezten diren tauletan ondorengoak biltzen dira: KEMEN markoaren ardatzak eta bakoitzari lotutako arloak, jarritako helburu estrategikoak, diagnostikoa egiteko neurtu diren adierazleak, horietako bakoitzean lortutako puntuazioa (2024koa) eta plangintzaldi bukaerarako aurreikuspena (2027koa), aztertutako adierazleen egoerari buruzko laburpena eta informazioa lortzeko erabilitako iturria, eta baita hartuko diren neurriak ere.

Plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko tresna kudeaketa-plana izango da (ikusi 4. eranskina). 2024-2025eko kudeaketa-planean 3 ekintza-multzo nagusi landuko dira bereziki:

- Plan estrategikoa kudeatuko duten egiturak abiaraztea.
- Plana bera eta hizkuntza-irizpideak erakunde osoan jakinaraztea.
- Aurrerapausoak ematea Planean ezarritako helburuen jarraipenean.



**ESKORIATZAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA  
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA  
2024-2027**

<b>1.ardatza.- KUDEAKETA</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b>	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b>
	<b>%39,6</b>	<b>%62,8</b>

Ardatzaren erronka:

Euskararen kudeaketa Udalaren ohiko kudeaketaren barruan txertatzea, arduradun politikoen eta langileen partehartze aktiboa baliatuta

<b>1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b>	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b>
	<b>%0</b>	<b>%65</b>

Egoera:

Oinarri ona badago ere (gaitasun nahiko altua langile zein politikoen aldetik, euskara bultzatzeko eta ekimenetan parte hartzeko prestutasuna, esperientzia luzea euskararen normalkuntzan ...), ez dago plan estrategikoak eta kudeaketa-planak diseinatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko sistema egituraturik.

Helburu estrategikoa:

Plan estrategikoak eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua sortu, eta jarraipen sistematikoa egitea bai planei eta baita hizkuntza irizpideei ere.

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>Azalpenak eta proposamenak</b>	<b>2024 %</b>	<b>2027 %</b>
<p><b>1.0.1.1.- Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Zerbitzua da plana exekutatzearen eta jarraipena egitearen arduradun nagusia.</li> <li>- Ez dago planaren kudeaketarako sistema egituraturik.</li> <li>- Edonola ere, lanerako oinarri ona dago. Langile eta politikoen aldetik badago hizkuntza gaiez arduratzearen aldeko jarrera.</li> </ul> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>Egitura egokia antolatzea:</b> udalaren kudeaketa orokorrean txertatua, zeharkakoa, arduradun tekniko zein politikoz osatua eta operatiboa izango dena. Planean bertan jasoko da proposamena.</p>	%0	%50
<p><b>1.0.1.2.- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Azken urteotan ez da kudeaketa planik egin.</li> <li>- Planari lotutako gaiak (kontratazioetarako irizpideen jarraipena, Euskaraldia, langileen ahozko harreman htza...) Udal antolaketarako bileretan zein Kultura batzordean tratatu izan dira, baina ez da bestelako jarraipenik egin.</li> <li>- Eskoriatzako Udalak 2001. urteaz geroztik ditu onartuta bere Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak. Irizpide horiek erakunde osoari eragiten diote, eta jarraipen sistematikorik egin ez bada ere, esan daiteke urteen poderioz euskararen kudeaketa nahiko integratuta dagoela arlo gehienen funtzionamenduan.</li> </ul> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>a.- Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen</b> dokumentua landu eta onartzea.</p> <p><b>b.- Kudeaketa-planak</b> egitea, Plan estrategiko honetan oinarrituta.</p> <p><b>c.- Kudeaketa planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipena egitea</b>, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin.</p>	%0	%75

1.0.2 arloa: LIDERGOA	2024: Hasierako egoera	2027rako aurreikusitako egoera
	%37,5	%62,5

Egoera:

Erabilera-plana aurrera eramateko egitura operatibo bat sortzea komeni da, Euskara zerbitzuarekin batera lanean aritzeko.

Helburu estrategikoa:

Eskoriatzako Udaleko arduradun politiko eta teknikoen proaktibotasunez jardutea plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketan.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>1.0.2.4.- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa- planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia <b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Orain arte ez da egon Plana diseinatzeko, garatzeko eta jarraipena egiteko modu sistematikorik. Plan Euskara zerbitzuan egin da, eta jarraipena gai puntualetara eta Jaurlearitzak 2-3 urtetik behin eskatutako neurketak egitera mugatu da. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera ez da txarra, baina sistematizazio horri dagokionez, ezta proaktiboa ere.</p>	%0	%50
<p><b>1.0.2.5.- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia <b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Oro har, bai politikoen eta bai langileen jarrera eta konpromisoa onak dira Erabilera Planeko helburuak bete eta betearazteari dagokionean.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> <b>Udalbatzari eta arduradun teknikoei Erabilera Plana aurkeztea.</b></p>	%75	%75

1.0.3 arloa: LANGILEAK	2024: Hasierako egoera	2027rako aurreikusitako egoera
	%85	%90

Egoera:

Langileek, orokorrean, ezagutzen dituzte Udalaren hizkuntza irizpideak, eta ondo baloratzen dute Udalak euskara sustatzeko egindako lana.


Helburu estrategikoa:

Hizkuntza-irizpideez gain, onartutako plan estrategiko eta kudeaketa-planen berri ere ematea langileei, eta, haien iritzia kontuan hartuta, helburuak lortzeko tresna guztiak haien eskura jartzea.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>1.0.3.7.- Langileei ematen zaie informazioa erakundearen plan estrategiko, kudeaketa-planen eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia eta langileen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> <b>Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak:</b> langileek oro har badaukate horien berri. Urte asko igaro dira lehen aurkezpen orokorra egin zenetik, eta harrezkero, egondako aldaketen berri eman izan da. Langile berriei harrera linguistikoa egiten zaie. Irizpideak langile guztien eskura daude intranetean. <b>Plan estrategiko eta kudeaketa-planak:</b> Langileei orain arte ez zaie horien berri eman.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> Langileei diagnostikoaren emaitzen berri ematea eta Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea...</p>	%80	%90

<b>1.0.3.8.- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia <b>Aginte panelekoa</b>	<u>Egoera</u> Langileek nahiko ondo betetzen dituzte hizkuntza-irizpideak.	%88,5	%90
<b>1.0.3.11.- Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Langileek oso balorazio ona ematen diote euskararen erabilerak Udalean izan duen bilakaerari	%100	%100

<b>1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b> %87,5	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b> %91,6
--	--	--



Egoera:

Eskoriatzako Udala nahiko egoera onean dago **langileen euskararen ezagutzari** dagokionez. Izan ere, 30 langiletik:

- 23 langilek 3HE edo 4HE egiaztatuta daukate (%77)
- 3 langilek 2HE egiaztatuta daukate
- 3 langilek 1HE egiaztatuta daukate (horietako 2 euskaldun-zaharrak dira)
- 1ek ezer ez

Hau da, 2 langile daude euskaraz komunikatzeko gauza ez direnak. Langile horiek obra eta zerbitzuetako eskulangileak dira, eta ez dute ez idatzizko produkzioerik ez herritarrekiko zuzeneko harremanik.

30 lanpostu horietatik lanpostu bakarrak ez dauka ezarrita **euskara jakiteko derrigortasuna**.

**Ordezkarri politikoei** dagokienez ere, egoera ona da: % 82a da euskaraz hitz egiteko gai eta % 100a ulertzeko gai.

Helburu estrategikoa:

Lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak egungo beharretara egokitzea, eta langileen benetako hizkuntza gaitasuna bermatzeko neurriak bideratzea.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<b>1.0.4.12.- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Langileek, oro har, gaitasun nahikoa dute euskaraz maila onean hitz egiteko, baina badago zailtasunak dituela aitortu duenik ere (eskulangileak ez daude sartuta datu horretan). Beharrak aztertu eta neurriak bideratzea komeni da.  <u>Planerako neurriak</u> <b>a.-</b> Langileak <b>Euskaraldian</b> parte hartzea gonbidatzea <b>b.-</b> Udalak berak antolatzen dituen <b>prestakuntza orokorreko jarduerak euskaraz izatea</b> , hizkuntza gaitasuna lortzeko biderik eraginkorrenetakoa hizkuntza horretan aritzea baita. <b>c.-</b> Lanpostu zerrendako <b>hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak berrikustea</b> , dagozkion aldaketak proposatzea eta Dekretu berrira egokitzea. <b>d.- Hautaketa-probetan</b> , derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, <b>proba bat gutxienez euskaraz</b> egitea.	%78	%85



<p><b>1.0.4.13.- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> Oro har gaitasun ona, langile batzuek zailtasunak dituztela aitortu badute ere. Izan ere, errealitatea da <b>askok gai teknikoetarako gaitasun erlatibo hobea dutela gaztelaniaz.</b></p> <p><u>Planerako neurriak</u> <b>a.- Langileak euskara maila hobetzera animatzea</b>, bereziki, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaintzea (trebakuntza, euskara, ikastaro laburrak, zuzenketa zerbitzua, ...). <b>b.-</b> Udalak berak antolatzen dituen <b>prestakuntza orokorreko jarduerak euskaraz izatea</b>, hizkuntza gaitasuna lortzeko biderik eraginkorrenetakoa hizkuntza horretan aritzea baita. <b>c.-</b> Lanpostu zerrendako <b>hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak berrikustea</b>, dagozkion aldaketak proposatzea eta Dekretu berrira egokitzea. <b>d.-</b> Lanpostuak hornitzeko <b>hautaketa-probetan</b> (lanpostu berrietan zein jubilatuko diren langileen plazetan), <b>proba bat gutxienez euskaraz</b> egitea, lanpostuak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duen guztietan.</p>	<p>%83</p>	<p>%90</p>
<p><b>1.0.4.14.- Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> Hauteskunde aldietan bailara mailan kanpainak egin izan dira hautagai euskaldunak jartzearen eta hautatzearen garrantziaz kontzientziatzeko, eta azken urteetan lortu da ulermena % 100ean bermatuta egotea. Udal batzordeetarako eta barne antolakuntzako lan-bileretarako hizkuntza irizpideak adosten dira agintaldi bakoitzaren hasieran.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> <b>a.-</b> Ordezkaritza politikoak euskaldunak izatea bultzatzen jarraitzea, udalaren euskarazko funtzionamendua bermatzeko. <b>b.-</b> Agintaldi bakoitzaren hasieran, Udal <b>batzordeetarako eta</b> barne antolakuntzako lan-<b>bileretarako hizkuntza irizpideak</b> adosten jarraitu. <b>c.-</b> Udalkide berrien hizkuntza ezaugarrien eta beharren informazioa jaso eta euskaraz funtzionatzeko laguntza-bideak eskaintzea.</p>	<p>%100</p>	<p>%100</p>

**1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA**

Arlo honi dagokionez, esan beharra dago udal lanpostu guztietan bereizgarriak jarrita daudela langileek euskaraz dakitela adierazteko herritarrei, eta Udalak parte hartzen duela normalizazio alorreko ezagutza jasotzeko ekimenetan (Udal<->ekin, AriGara,...).  
Plangintzaldi honetan besterik egitea aurreikusten ez denez, ez dugu Plan estrategikoan sartu.

<p><b>1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b></p>	<p>2024: Hasierako egoera</p>	<p>2027rako aurreikusitako egoera</p>
	<p>%66</p>	<p>%81</p>

Egoera:  
Salbuespenak salbuespen, ia kontratu, dirulaguntza eta hitzarmen guztietan txertatzen dira hizkuntza-klausulak. Jarraipena da arazoa.

Helburu estrategikoa:  
Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak ezartzea eta jarraipena egiteko modua sistematizatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>1.0.6.17.- Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u></p> <p>Eskoriatzan, 2018an onartutako Erabilera Planean jaso zen noiz eta nola txertatu behar ziren hizkuntza-klausulak kontratazio administratiboetan. Harrezkero egindako lanaren ondoren, klausula horiek txertatzeko prozedura sistematizatuta dago espedienteen tramitazioan, eta langileek barneratuta dute hizkuntzen erabilera kontuan hartu behar dela kontratazioan. Hau da egungo egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Baldintza plegu bidez egiten diren kontratu mota ia guztietan txertatzen dira hizkuntza betebeharrak (hornidura kontratuak dira salbuespen bakarra). Horrez gain, herritarrekiko harremana eskatzen duten kontratueta, baloratu egiten da enpresek euskararen aldeko normalizazio neurriak izatea (Euskara plana izatea, Bikain ziurtagiria, ...).</li> <li>- Kontratu txiki guztietan ezartzen dira hizkuntza betebeharrak.</li> <li>- Gastu txikitako zenbait ebazpenetan ere txertatzen dira (hizkuntzen erabilera kontratua gauzatzekoan alderdi esanguratsua dela irizten zaionean), baina ez beti.</li> </ul> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>a.-</b> Kontratu mota guztietan hizkuntza-klausulak modu sistematikoan txertatzen jarraitzea.  <b>b.-</b> Herritarrekiko harremana eskatzen duten kontratueta, aztertzea, kasuz kasu, puntuazio-portzentaje bat esleitu ala ez, baldintza-agirietan eskatutako hizkuntza-neurriak hobetzen dituen eskaintza aurkezteagatik.  <b>c.-</b> Langile berriei hizkuntza-klausulak txertatzeko prozedura azaldu (kontratazio ardurarik izan behar badute).</p>	%100	%100
<p><b>1.0.6.18.- Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u></p> <p>Irizpideak jartzen dira kasurik gehienetan, bai deialdi bidezko dirulaguntzetan, bai hitzarmen bidezkoetan, betiere dirulaguntzaren xede den jarduerak herritarrekiko harremana eskatzen badu (ahozkoa zein idatzizkoa).</p> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>a.-</b> Laguntzaren xede den jarduerak herritarrekiko harremana (ahoz zein idatziz) sortzen duen kasuetan, oinarri edo hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea.  <b>b.-</b> Laguntzen zenbatekoa zehazterakoan, euskara sustatzeko irizpideak ezartzea, baldin eta hizkuntzen-erabilera diruz lagunduko den jarduerarako alderdi esanguratsua bada.</p>	%100	%100
<p><b>1.0.6.19.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u></p> <p>Ia guztiei egiten zaie nolabaiteko jarraipena, baina jarraipen sistematikoa soilik herritarrei zerbitzua eskaintzera bideratutako kontratu batzuei. Azken horiek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Neurriak hartzen dira enpresak kontratua esleitu aurretik frogatu dezan zerbitzura atxikiko dituen langileek badutela pleguetan ezarritako hizkuntza gaitasuna; eta subrogatutako langileak dituztelako irizpidea bete ezin denean, neurriak adosten dira enpresarekin.</li> <li>- Harrera egiten zaie, hizkuntza irizpideak azaltzeko.</li> <li>- Dagokion arloko arduradunaren bitartez, datuak eskatzen zaizkie urtero, irizpideak betetzen dituzten baloratzeko, eta hala ez bada, neurriak bideratzeko.</li> </ul> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>a.-</b> Herritarrekin zuzeneko harremana izatea eskatzen duten kontratuen jarraipen zehatza egitea  <b>b.-</b> Kontratuaren arduradunek barneratzea hizkuntza baldintzen jarraipena gainerako baldintzen jarraipenarekin batera egin behar dutela.</p>	%75	%75

<p><b>1.0.6.20.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> Deialdi bidezko dirulaguntzetan ez da jarraipenik egiten. Hitzarmen bidezkoetan bai, baina soilik diruz lagundutako jarduerak haur eta gazteekiko harreman zuzena eskatzen duenean (kirol jarduerak, musika eskola,...).</p> <p>Azken 2 urteetan, ez da kirol arloko laguntzen jarraipenik egin.</p> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p><b>a.-</b> Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipena egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea, eta dirulaguntzen ardura duten teknikarien bidez gauzatzea.</p> <p><b>b.-</b> Haur eta gazteekiko harreman zuzena eskatzen duten jardueretarako dirulaguntzak emateko irizpideak birdefinitu, eta emandako dirulaguntzen jarraipen zehatza egitea.</p>	<p>%25</p>	<p>%75</p>
---	---	------------	------------

<b>2.ardatza. ERABILERA</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b>	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b>
	<p align="center">%67,6</p>	<p align="center">%73,7</p>

Ardatzaren erronka:

Eskoriatzako Udalak uneoro eta egoera guztietan bermatzea herritarren hizkuntza-eskubideak, eta euskara hutsezko barne- eta kanpo-harremanak areagotzea

**2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA**

**2.1.1 arloa: IRUDIA**

Eremu honetan, "Herritarrekiko harremanak" bakarrik hartu ditugu kontuan, eta ez dugu "Irudia" arloa neurtu, zenbait arrazoi direla medio:

- Udalaren errotulazioa (finkoa zein behin-behinekoa): urteetako lanaren ondorioz, udal eraikinetan nagusi da euskara hutsezko errotulazioa (udaletxean ia %100) eta gainerakoa ele bietan dago. Gaztelera hutsezkorik ez dago. Ez dugu lanketa beharrik aurreikusten datozen urteetarako.
- Ikus-entzunezkoak: Bakarren bat egin da soilik. Ele bietan.
- Argitalpen, iragarki eta publizitatea: Ia ez da egiten, eta egitekotan, ele bietan edo aukera dagoenetan euskara hutsean. Gaztelera hutsezkorik ez.
- Agerraldi instituzionalak: ez da egiten.
- Webgunea (eduki finkoa eta albisteak), tramitazio elektronikoa, inprimakiak: Denak daude ele bietara, %100ean.

Ondorioz, "Irudia"ri dagokion arloa ez dugu kontenplatu plan estrategiko honetarako.

<b>2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b>	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b>
	<b>%85</b>	<b>%92</b>

**Egoera:**

Langileek, oro har, ondo betetzen dituzte herritarrekiko hizkuntza irizpideak, batez ere idatzizko harremanetan; ahozko harremanetan, eskaintza aktiboa hobetu beharko litzateke (lehen hitza eta lehen esaldia, beti euskaraz), eta %100ean bermatu zerbitzua euskaraz emango zaiela hala eskatzen duten herritarrei.

**Helburu estrategikoa:**

- Herritarrak Udalarekin harremanetan jartzen direnean, haien hizkuntza eskubideak bermatzea, eta hizkuntza berdintasuna lortzea.
- Herritarrekin ohiko harremana duten lanpostuetako langileek % 100ean artatzea herritarrak euskaraz.

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>Azalpenak eta proposamenak</b>	<b>2024 %</b>	<b>2027 %</b>
<p><b>2.1.2.25.- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Irizpideetan jasota dago langileek herritarrekiko harremanetan lehen hitza euskaraz egitea. Herritarrak artatzen dituzten langile guztiek daukate egiaztatuta lanpostuari dagokion eusk. gaitasuna. Udal instalazio eta bulego guztietan errotulazioa jarrita dago langileek eusk. badakitela adierazteko. Hala eta guztiz ere, langileek inkestetan aitortutakoaren arabera, %79an betetzen da irizpidea.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> Langileei irizpidea gogorarazi eta %100ean ez betetzearen arrazoiak identifikatu.</p>	%79	%100
<p><b>2.1.2.26 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Langileek inkestetan adierazitakoaren arabera, hala nahi duten herritarrei euskaraz ematen zaie ahozko zerbitzua (salbuespenen bat egon badagoen arren).</p> <p><u>Planerako neurriak</u> Aurreko puntuan adierazitako neurri bera.</p>	%93	%100
<p><b>2.1.2.27.- Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Datu hau neurtzerakoan, ez dira aintzat hartu haurrentzako ekitaldiak, %100ean eskaintzen baitira euskaraz. Helduentzako ekitaldiei dagokienez (hitzaldi, aurkezpen, erakusketa...), emandako informazioaren %53 euskaraz eskaini da eta %47 gazteleraz; eta ikastaroen kasuan, %57 euskaraz eta %43 gazt.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> Euskaraz eskaintako ekitaldi kopurua handitzeko estrategiak lantzea udal arloekin, eta ekitaldietako hizkuntza informazioa jasotzeko modua sistematizatzea.</p>	%55	%60
<p><b>2.1.2.28.- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u> Herritarren alde aurreko hizkuntza hauturik ez dagoenean, Udalak, oro har, ele bietan bidaltzen ditu komunikazioak. Elebitasun sistematiko horretatik irten eta euskara hutsezko komunikazio kopurua handitzeko helburuarekin, Hizkuntza Errolda sortu zuen Udalak 2016an. Harrez geroztik, euskara hutsean bidaltzen zaizkie udal idatziak hala eskatu duten herritarrei.</p> <p><u>Planerako neurriak</u> <b>a.-</b> Idatzien irteera-erregistroko hizkuntza datuak jasotzen jarraitu ahal izateko neurriak hartzea, udal espedienteen kudeaketarako aplikazio berria jartzen denean. <b>b.-</b> Aurreko urtean 18 urte bete dituzten eskoriatzarrei gutuna bidaltzea, kontrakorik adierazi ezean, udal idatziak euskaraz jasoko dituztela jakinarazteko.</p>	%100	%100

<p><b>2.1.2.29.- Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.</b></p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u>          Bai Hizkuntza Erroldan euskara hautatuta duten herritarrei bai Erregistroan euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzuten zaie nagusiki (%88); baina batzuetan ele bietan ere bai, zenbait arrazoigatik: prozeduran pertsona bat baino gehiago inplikaturako dagoelako, jabe-komunitateen idatziak direlako, hizkuntza erroldan begiratu ez delako...</p> <p><u>Planerako neurriak</u>          Idatzia euskaraz aurkeztu dutenei eta idatziak euskaraz jasotzea eskatu dutenei euskara hutsean erantzun behar zaie birgogoraztea langileei.</p>	<p>%100</p>	<p>%100</p>
---	---	-------------	-------------

## 2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA

<p><b>2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK</b></p>	<p>2024: Hasierako egoera</p> <p style="text-align: center;">%75</p>	<p>2027rako aurreikusitako egoera</p> <p style="text-align: center;">%89</p>
---	--	--

Egoera:

Idatzizkoari dagokionez, euskara da hizkuntza nagusia udalaren barruko harremanetan; baina ahozkoari dagokionez, lankideen arteko harremanetan gaztelania da nagusi kasuen %23an.

Helburu estrategikoa:

Barne-harremanetan euskararen erabilera areagotzea eta, aukera dagoen guztietan, lana euskara hutsez egitea bermatzea.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>2.2.1.32.- Lan-bilerak euskaraz egiten dira.</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u>          Ulermena bermatuta dagoenez, "ahobizi" eta "belarriprest" rolak praktikan jarriz, plenoak euskaraz egiten dira, eta, arlo zehatz batekoak izan ezik, baita batzorde informatzaile, udal antolakuntzako bilera eta bestelako lan bilerak ere.          Teknikariei galdetuta, Udalean horrela funtzionatzen den pertzepzioa orokorra bada ere, langileek betetako inkestak beste datu bat eman du: bileren %44a bakarrik dela euskaraz.</p> <p><u>Planerako neurriak</u>  <b>a.-</b> Langile guztiak elkartzen diren bileretarako (urtean gutxi izaten dira) interpretaritzak eta itzulpen sistemak ezartzea (euskara ulertzen ez duten langileak daude brigadan)  <b>b.-</b> Inkestan atera den datu bazu horren arrazoia identifikatu eta hala badagokio, neurriak bideratu.</p>	<p>%44</p>	<p>%75</p>
<p><b>2.2.1.33.- Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u>          Langile gehien arteko laneko ahozko harremanak euskaraz dira; baina kasu batzuetan, gaztelaniaz gaitasun hobea izateak, hizkuntza hori erabiltzera eramaten ditu langile batzuk, eta horrek zuzen-zuzenean eragiten du inguruko jardunean.          Langileen arteko hizkuntza ohituretan eragin eta euskararen erabilera bultzatzeko helburuarekin, ondorengoak egin dira azken urteetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- "Ariguneak" osatu eta Euskaraldian parte hartu izan dute langileek, egin diren edizio guztietan.</li> <li>- Aldahitz metodologian oinarritutako "Berba sarea" ekimena gauzatu zen Udaletxeko langile guztien artean 2022an.</li> </ul>	<p>%78</p>	<p>%90</p>

<b>2.2.1.34.- Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Aurreko puntuan esandakoa.	%77,5	%90
<b>2.2.1.35.- Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia <b>Aginte panelekoa</b>	<u>Egoera</u> Udal barruko harreman idatzia euskaraz da oso maila altuan. Barne komunikazio orokorrak (intraneta, e-posta mezuak, oharrak...), eta batzorde informatzaile, udal antolakuntzako bilera eta bestelako lan-bileretako idatziak (bilera deiak, aktak, txostenak, diktamenak,...) zein bestelako barne idatziak (pertsonal arloko komunikazioak, barneko jakinarazpenak,...) euskara hutsean egiten dira nagusiki; eta ele bietan, euskara ulertzen ez duen langileren batek jaso behar duenean.	%97	%97
<b>2.2.1.38.- Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Laneko hizkuntza-paisaia euskaraz (%85) edo ele bietan (%10) dago, oro har: karpetak, artxiboak, inprimagailu eta fotokopiagailuetako pantailetakako testuak ... euskara hutsean daude; eta bestelakoak (kafe-makina, su itzalgailuak...) ele bietan.	%95	%96

<b>2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK</b>	<b>2024: Hasierako egoera</b>	<b>2027rako aurreikusitako egoera</b>
	<b>%89,6</b>	<b>%90</b>

Egoera:

- Sektore publikoko erakundeekin oso altua da euskararen erabilera: idatzizko harremanetan, euskara hutsezko erabilera %83koa da, eta ahozkoan, %81ekoa.
- Enpresa pribatuekiko harremanetan, berriz, euskararen erabilera bermatuta badago ere, askoz baxuagoa da euskara hutsezko harremanen portzentajea: idatzizkoan %29 (gainerakoak ele bietan), eta ahozkoan %68.

Helburu estrategikoa:

- EAEn eta euskara hizkuntza ofiziala den lurraldetan kokatutako administrazio publikoekin, harremanak euskara hutsean izatea.
- Enpresa pribatuekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzea.

<b>ADIERAZLEA</b>	<b>Azalpenak eta proposamenak</b>	<b>2024 %</b>	<b>2027 %</b>
<b>2.2.2.39.- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Berez harremana euskara hutsean izatea da irizpidea.	%81,7	%82
<b>2.2.2.40.- Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.</b> Datuen iturria: Erakundearen galdet./ <b>Aginte panelek.</b>	<u>Egoera</u> Irizpidea administrazio publikoekiko harremana euskara hutsez izatea da. Langileek irizpidea ezagutzen dute, eta nahiko ondo betetzen dute: 2023an dokumentuen %83 euskara hutsean bidali zen eta %17 ele bietan.	%100	%100
<b>2.2.2.41.- Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</b> Datuen iturria: Langileen galdetegia	<u>Egoera</u> Irizpidea ahal den guztietan harremana euskaraz izatekoa da. Betetzeari buruzko informazioa langileek eurek emandakoa da. Ez da aparteko ekimenik bideratu izan.	%68	%70
<b>2.2.2.42.- Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.</b> Datuen iturria: Erakundearen galdetegia	<u>Egoera</u> Irizpidea gaztelera hutsezko idatzirik ez bidaltzea da, eta ondo betetzen da. 2023an, enpresa pribatuentzako irteeren %29 euskara hutsean bidali zen eta %71 ele bietan. Ez da euskararen erabilera sustatzeko aparteko ekimenik egin. <u>Planerako neurriak:</u> Enpresa pribatuekiko harremanetan euskara hutsezko harremana sustatzeko ze aukera dagoen aztertu. HARIXA egitasmoarekin kontrastatu.	%100	%100

### 2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA

“Prestakuntza” arloa ez dugu neurtu, plangintzaldi honetan ez dugulako horretan eragitea aurreikusi.

### 2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

2024: Hasierako egoera

2027rako aurreikusitako egoera

%80,5

%87,5

#### Egoera:

Orokorrean, eta zailtasunak zailtasun, ondo zaintzen da baliabide informatikoak euskaraz instalatzearen irizpidea. Jarraipena egitea garrantzitsua da, irizpidea zein den ez ahazteko

#### Helburu estrategikoa:

Euskaraz erabilgarri dauden baliabide informatikoak instalatzen direla bermatzea, eta neurriak hartzea baliabide informatikoak euskaraz erabil daitezen.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>2.2.4.46.- Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> 2023an egindako azken neurketaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Windows sistema eragilea, euskaraz instalatuta: %39</li> <li>- Office: %78</li> <li>- Gmaila: %50</li> <li>- Munigex (udal espedienteen kudeaketarako aplikazioa): %95</li> <li>- Portalhorario (langileen orduen erregistroa egiteko softwarea): %100</li> </ul> <p><u>Planerako neurriak</u> a.- Baliabide informatikoen eta horien hizkuntzaren inbentarioa egin eta eguneratuta mantentzea. Bi urtetik behin jarraipena egitea. b.- Udal barruko erabilerako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan.</p>	%81	%85
<p><b>2.2.4.47.- Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p>	<p><u>Egoera</u> Udalaren irizpidea da, alde batetik, programa, aplikazio, datu-base, tresna edo sistema eragileen euskarazko bertsioa instalatzea B2 edo goragoko euskara maila egiaztatuta duten langileei, bertsioa eskuragarri dagoen guztietan; eta bestetik, langileek euskarazko bertsioak erabil ditzaten sustatzea</p> <p><u>Planerako neurriak</u> Langileei irizpidea gogorarazi, eta baliabide informatikoen <b>inbentarioan</b> erabilera datuak ere jaso.</p>	%80	%90

2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA	2024: Hasierako egoera	2027rako aurreikusitako egoera
	%74	%80

Egoera:

- Euskaraz sortutako dokumentuen ehunekoa nahiko altua da.
- Itzultzaile neuronalek asko erraztu dute langileen euskarazko produkzioa, eta baita ele bietan egin beharreko idatzien itzulpena ere, uneoro itzulpen zerbitzuaz baliatu behar izan gabe

Helburu estrategikoa:

Udalak neurriak hartzea euskaraz sortzen diren dokumentuak urtetik urtera gehiago izateko.

ADIERAZLEA	Azalpenak eta proposamenak	2024 %	2027 %
<p><b>2.2.5.48.- Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak</b></p> <p>Datuen iturria: Langileen galdetegia</p> <p><b>Aginte panelekoa</b></p>	<p><u>Egoera</u></p> <p>Irizpidea honakoa da funtsean: euskara izango da udal barruko jarduneko hizkuntza, eta itzulpen zerbitzua modu arrazionalizatuan erabiliko da, eta ez sistematikoki. Horregatik, 3HE edo hortik gorako maila duten langileek euskaraz sortuko dituzte euren idatziak, eta, testua ele bietan bideratzekoa bada (soilik kasu horietan), itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da.</p> <p>Langileek galdetegian emandako erantzunen arabera, nagusiki euskaraz sortzen dituzte idatzi beharreko dokumentuak, nahiz eta itzultzaile neuronala edo beste baliabideren bat erabili idatziak errematzeko.</p> <p>Itzulpen zerbitzuko datu kuantitatiborik ez daukagu, baina ia itzulpen guztiak gaztelaniatik euskarar egiten dira.</p> <p><u>Planerako neurriak</u></p> <p>Itzulpenen inguruko neurketa egitea (zer itzultzen den eta ze hizkuntzatarra), sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko, eta hortik abiatuta itzulpen irizpideak aztertu eta doitu.</p>	%74	%80





# 7

## PLANA KUDEATZEKO EGITURA

Hizkuntza-kudeaketa lan-esparru guztietan zeharkakotasunez eta modu sistematikoan lantzeko, Eskoriatzako Udalean, bere egoera linguistikoa eta ezaugarriak kontuan hartuta, ondorengo 2 lantalde hauek baliatuko dira:

### - TALDE TEKNIKOA:

Gidaritza lana egingo duen talde funtzionala izango da, lana aurrera eramateaz arduratuko dena. Urtean, gutxienez 3-4 bilera.

Partaideak:

- Hizkuntza normalizatzailea
- Euskara teknikaria
- Euskararen arduradun politikoa

Funtzioak:

- Hizkuntza irizpideak idatzi.
- Datu bilketa antolatu, eta emaitzen arabera helburuak proposatu.
- Plan estrategikoa kudeatu (diseinatu, inplementatu, jarraipena egin eta hobekuntzarako neurriak proposatu).
- Kudeaketa planak idatzi.
- Prozesua koordinatu: proposamenak Koordinazio Taldera bideratu.

### - TALDE ERAGILEA: KOORDINAZIO TALDEA

Udalan euskararen erabilera normalizatzeko jarraitu beharreko estrategiak Koordinazio Taldean adostuko dira. Talde hori arduradun tekniko zein politikoz osatuta dago, eta udal zerbitzu guztien ordezkapena du. Gutxienez urtean behin egingo dute planaren jarraipena.

Partaideak:

- Alkatea
- Idazkaria
- Ekonomia arloko teknikaria
- Udal esparruetako koordinatzaileak:
  - Antolakuntza taldeko 1
  - Herritartasun taldeko 1
  - Lurraldetasun taldeko 1

Funtzioak:

- Hizkuntza irizpideak adostu.
- Udalaren diagnostikoa kontrastatu eta helburuak adostu.
- Plan estrategikoa eta kudeaketa planak adostu.
- Planaren eta hizkuntza irizpideen jarraipena egin.



Bi talde horien bidez jarraipen sistematikoa egingo zaie bai plan estrategikoari, bai hizkuntza-irizpide hauei, eta ikusitako emaitzen arabera helburu berriak ezarri, planteamendua aldatu, edo mekanismoak egokituko dira.

Nolanahi ere, Udalaren ohiko organo edo gune batzuetan ere egingo zaio jarraipena erabilera-planari: Kultura, euskara eta hezkuntza batzordean, eta hala dagokionean, Osoko Bilkuran bertan.



# ERANSKINAK



# **1. ERANSKINA**

## **LANPOSTU ZERRENDA**

# ESKORIATZA 2024/12/01

## IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
1	Idazkari-kontuhartzailea	OROK.	A1/A2	4	1994/12/31	FUNTZIONARIOA	3HE
2	Zerb.ekonomikoetako erdi maila.tek.	OROK.	A2/A1	3	2012/12/20	BITARTEKO FUNTZIONARIOA	4HE
3	Kontuhartzailetzako erdi maila.tek.	OROK.	A2	3	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	4HE
4	H@ZI-Idazkaritza administraria	JENDAUR.	C1	3	2021/2/26	FUNTZIONARIOA	3HE
5	H@ZI-Dirubilketa administraria	JENDAUR.	C1	3	2021/2/26	FUNTZIONARIOA	3HE
6	H@ZI-Hirigintza/obra eta zerbitzuak administraria	JENDAUR.	C1	3	2021/2/26	BITARTEKO FUNTZIONARIOA	3HE
7	H@ZI-Gizarte zerb/kultura/euskara administraria	JENDAUR.	C1	3	2021/2/26	FUNTZIONARIOA	3HE

## HIRIGINTZA ZERBITZUA

LANP. KODEA	LANPOSTUA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
8	Hirigintzako teknikaria	OROK.	A2	3	1995/7/30	FUNTZIONARIOA	3HE

## OBRA ETA ZERBITZUAK

LANP. KODEA	LANPOSTUA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
9	Obra publikoetako udal ingeniari tek.(1)	OROK.	A2	4	2011/4/27	FUNTZIONARIOA	3HE
10	Obra publikoetako udal ingeniari tek.(2)	OROK.	A2	4	2019/12/17	FUNTZIONARIOA	4HE
11	Eginbehar anitzetako A langilea	BEREZIA	C2/E	1	—	FUNTZIONARIOA	0
12	Eginbehar anitzetako B langilea	BEREZIA	C2/E	1	2011/5/25	FUNTZIONARIOA	1HE
13	A Peoi lurperatzailea	BEREZIA	C2/E	1	2011/5/25	LABORAL FINKOIA	1HE
14	B Peoi lurperatzailea	BEREZIA	C2/E	1	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	1HE
15	Kirol instalazioetako A kontserjea	JENDAUR.	C2/E	2	2002/1/10	FUNTZIONARIOA	2HE
16	Kirol instalazioetako B kontserjea	JENDAUR.	E	2	2001/2/22	FUNTZIONARIOA	2HE

## HERRITARREN SEGURTASUNA

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
17	A Udaltzaina	GIZARTE	C1	3	2004/5/10	FUNTZIONARIOA	4HE
18	B Udaltzaina	GIZARTE	C1	3	2006/5/10	FUNTZIONARIOA	3HE

## EUSKARA

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
19	Euskara teknikaria	GIZARTE	A2	4TG	TP	FUNTZIONARIOA	4HE
20	Itzultzailea	OROK.	A2	4TG	TP	FUNTZIONARIOA	4HE

**KULTURA ETA JAIK**

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
21	Kultura teknikaria	GIZARTE	A2	3	2002/1/10	FUNTZIONARIOA	3HE
22	Kultura eta kiroletako laguntzailea	JENDAUR.	C1	3	2014-10-28	LABORAL FINKOA	2HE
23	Bibliotekari arduraduna	JENDAUR.	A2	3	2002/1/10	Hutsik	
24	Bibliotekari laguntzailea	JENDAUR.	C1	3	2004/10/5	FUNTZIONARIOA	4HE

**GIZARTE ZERBITZUAK**

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
25	Gizarte langilea	GIZARTE	A2	3	1993/12/31	FUNTZIONARIOA	4HE
26	Gizarte langilea	GIZARTE	A2	3	2022/5/11	FUNTZIONARIOA	3HE
27	Drogamenpekotasunen preb. tekn.	GIZARTE	A2	3	2002/1/10	LABORAL FINKOA	3HE

**GAZTERIA**

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
28	Gazteria teknikaria	GIZARTE	A2	4	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	4HE

**GARAPENA**

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
29	Toki garapeneko teknikaria	GIZARTE	A2	3	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	3HE
30	Ingurumen garapenerako teknikaria	OROK.	A2	4	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	4HE

**INFORMATIKA ZERBITZUA**

LANP. KODEA	LANPOSTUAREN IZENA	IZAERA	TALDEA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
31	Informatikaria	OROK.	A2	3	2019/12/17	FUNTZIONARIOA	3HE



## **2. ERANSKINA**

**“KEMEN” MARKOA**

## “KEMEN” MARKOA

Ondorengo taulan honakoak jasotzen dira: KEMEN markoaren ardatzak eta bakoitzari lotutako arloak, diagnostikoa egiteko neurtu beharreko adierazleak, bakoitzari ematen zaion balioa, eta informazioa lortzeko erabilitako iturria (E: erakundearen galdetegia, L: langileen galdetegia).

**Aginte taulako adierazleak**, derrigorrez neurtu beharrekoak, **gorriz** markatuta daude.

1.ardatza. **KUDEAKETA**

**% 30**

<b>1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	% 40	E1
<b>1.0.1.2</b>	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	% 60	E2
1.0.1.3	Erakundeak aurreikusten du bere ohiko lan-jardunak euskararen erabilera izan lezakeen eragina (HIZKUNTZA-INPAKTUA)	-	E3
<b>1.0.2 arloa: LIDERGOA</b>		<b>% 25</b>	<b>Iturria</b>
<b>1.0.2.4</b>	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 35	E4.1 E4.2 E4.3
<b>1.0.2.5</b>	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	% 35	E5
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	% 30	E6
<b>1.0.3 arloa: LANGILEAK</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 30	E7L1
<b>1.0.3.8</b>	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 40	L2
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planeari adostutako eginkizunak.	% 20	L3
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planeari zehaztutako sustapen-ekintzetan.	% 10	L4
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilera erakundearen duen bilakaeraz.	-	L5.1 L5.2
<b>1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA</b>		<b>-</b>	<b>Iturria</b>
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	-	L6
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	-	L7
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	-	E8
<b>1.0.5 arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA</b>		<b>% 15</b>	<b>Iturria</b>
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	% 70	E9
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	% 30	E10.1 E10.2
<b>1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
1.0.6.17	Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 15	E11
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 10	E12
<b>1.0.6.19</b>	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 45	E13
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 30	E14



**2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA (erabileraren % 30)**

<b>2.1.1 arloa: IRUDIA</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 20	E15.1 E15.2
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	% 20	E16.1 E16.2
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 30	E17
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	% 30	E18.1 E18.2 E18.3 E18.4
<b>2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>		<b>% 80</b>	<b>Iturria</b>
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz, herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 20	L8
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 25	L9.1 L9.2
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 20	E19.1 E19.2
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 15	E20
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 20	E21
2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	-	L10 L11
2.1.2.31	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	-	E22

**2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA (erabileraren % 70)**

<b>2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK</b>		<b>% 30</b>	<b>Iturria</b>
2.2.1.32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	% 20	E23 L12
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 25	L13
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	-	L14
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 20	L15
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizios abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	% 15	E24
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	% 15	E25
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	% 5	L16
<b>2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 30	L17
2.2.2.40	Sekt. publikoko erakundeekin eusk. edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	% 40	E26
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 15	L18
2.2.2.42	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	% 15	E27
<b>2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA</b>		<b>% 15</b>	<b>Iturria</b>
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	% 35	E28
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	% 45	L19
2.2.3.45	Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	% 20	E29
<b>2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>		<b>% 15</b>	<b>Iturria</b>
2.2.4.46	Udalak langileen eskura jartzen ditu eusk. lan egiteko behar dituzten baliabide infor.	% 50	L20
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte eusk. erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	% 50	L21
<b>2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA</b>		<b>% 20</b>	<b>Iturria</b>
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 100	L22



### **3. ERANSKINA**

Eskoriatzako Udalaren  
**HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**



## AURKIBIDEA

### Sarrera

- Zer dira hizkuntza-irizpideak?
- Helburu nagusiak
- Eragin eremua
- Erabilera normalizatua eta orokorra
- Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa
- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Administrazioaren obligazioak
- Kalitatezko komunikazioa
- Diskriminaziorik gabeko hizkuntza

### 1. ardatza: Kudeaketa

- 1.0.1 Euskararen kudeaketa orokorra
- 1.0.2 Lidergoa
- 1.0.3 Langileak
- 1.0.4 Hizkuntza gaitasuna eta derrigortasun-data
- 1.0.5 Hizkuntza-klausulak
  - Kontratu publikoak
  - Dirulaguntzak
  - Udal baimenak

### 2. ardatza: Erabilera

#### 2.1. Zerbitzu-hizkuntza

- 2.1.1. Irudia
  - Irudi korporatiboa
  - Udalaren inprimakiak eta komunikazio idatziak
  - Errotulazioa (finkoa eta behin-behinekoa)
  - Ikus-entzunezkoak
  - Paisaia akustikoa
  - Kartelak
  - Eskoriatzako agenda panelak eta kultur gida
  - Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea
  - Prentsa oharrak
  - Webguneak eta sare sozialak
  - Mugikorretarako APPa
  - Jendaurreko ekitaldiak
  - Prentsaurrekoak
- 2.1.2. Herritarrekiko harremanak
  - Herritarrekiko harremanak, ahoz
  - Herritarrekiko harremanak, idatziz
  - Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak

#### 2.2. Lan-hizkuntza

- 2.2.1. Barne-harremanak
  - Ahozko barne-komunikazioak
  - Idatzizko barne-komunikazioak
  - Dokumentuen sarreren eta irteeren Erregistro Orokorra
  - Barruko hizkuntza paisaia
  - Informaziorako edota komunikaziorako tresnak
- 2.2.2. Kanpo-harremanak
  - Administrazio publikoekiko harremanak
  - Entitate pribatuekiko harremanak
- 2.2.3. Prestakuntza
- 2.2.4. Baliabide informatikoak
- 2.2.5. Sortze-hizkuntza



## Sarrera

### Zer dira hizkuntza-irizpideak?

Agiri honetan jasotako hizkuntza irizpideak, Eskoriatzako Udalean hizkuntza arloan bete behar diren oinarritzko jarraibideak dira.

Irizpide hauek Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoan gauzatuko dira, eta behar izanez gero, osatu eta zehaztu egingo dira.

Euren betetze-maila eta hartu beharreko neurriak planari jarraipena eginez aztertuko dira, baita aldizka egingo diren ebaluazioetan ere.

Irizpide hauek izaera iraunkorra badute ere, plangintzaldi bakoitzaren hasierako urtean berrikusi, eta hala badagokio, eguneratu egin beharko dira.

Dokumentu honek, onartzen den momentutik aurrera, Eskoriatzako Udalbatzak 2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartutakoa ordezkaten du.

### Helburu nagusiak

Hizkuntza irizpideok hiru helburu nagusi dituzte:

- a) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta benetako hizkuntza-berdintasuna lortzea Udalaren jardun eremuan; eta horretarako, behar diren ekintzak bultzatzea eta sor daitezkeen oztopoak gainditzea.
- b) Euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea Eskoriatzako Udalean, euskara erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan dadin.
- c) Udala euskararen normalizazioan eredu izatea.

### Eragin eremua

Dokumentu hau onartzen den momentutik aurrera, Eskoriatzako Udaleko administrazio atal guztiek bete beharko dituzte bertan jasotako jarraibideak.

### Erabilera normalizatua eta orokorra

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta hortaz, modu normal eta orokorrean erabili behar da EAEko sektore publikoko entitateetan. Helburu horrekin, Eskoriatzako Udalak bere jardunean euskararen erabilera gero eta handiagoa izatea sustatuko du, bai barneko jardueretan, baita kanpokoetan ere.

### Hizkuntza ofizial batean egindako jarduketan baliotasun juridikoa

Eskoriatzako Udalak, herriaren errealitate soziolinguistikoa kontuan izanda, udal jarduerak euskaraz egitea erabaki dezake, eta horrela jasoko du bere plan estrategikoan.

Hizkuntzaren ikuspegitik, euskaraz gauzatutako administrazio egintza eta jarduera horiek balio juridiko osoa<sup>1</sup> izango dute.

Nolanahi ere, uneoro ziurtatuko zaie herritarrei administrazioarekin harremanetan jartzeko erabiliko duten hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea dutela.

<sup>1</sup> Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, eta baita epaile-jardunak, balio eta eragin-indar osoak izango dira. (Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarritzko Legearen 9.2. artikulua).



## **Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Administrazioaren obligazioak**

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak, eta azken hauei dagokiela eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea. Hau da, herritarrentzat eskubidea dena obligazioa da botere publikoarentzat.

Horregatik, Eskoriatzako Udal langileek, herritarrekiko komunikazioetan, herritarrek kasu bakoitzean aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabiliko dute. Barneko komunikazioetan, edo beste administrazio batzuekin dituzten komunikazioetan, berriz, irizpide hauetan ezarritakoaren arabera jokatuko dute, ahoz zein idatziz.

## **Kalitatezko komunikazioa**

Eskoriatzako Udalak, herritarrek mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda, euskarazko kalitatezko komunikazioa sustatuko du, estilo zuzen, egoki eta ulergarria erabiliz.

Horretarako, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Helburua komunikatzea da: hartzailak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafokak, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioa hizkera berri, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.
- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.

## **Diskriminaziorik gabeko hizkuntza**

Eskoriatzako Udalak hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar du irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituen dokumentu eta euskarrietan.



# 1. ardatza: Kudeaketa

---

## 1.0.1. Euskararen kudeaketa orokorra

Eskoriatzako Udalean, herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezzen, hizkuntza ofizialen kudeaketa Udalaren kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuko da. Hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzea Udalak hartutako erabaki estrategikoa izango da, eta bere erronken artean egongo da euskararen erabilera sustatzea, hizkuntza bien arteko berdintasuna lortze aldera.

Euskararen erabileraren kudeaketa lan-esparru guztietan modu sistematikoan txertatzeko, Eskoriatzako Udalean, bere egoera linguistikoa eta ezaugarriak kontuan hartuta, ondorengo 2 lantalde hauek baliatuko dira:

### - TALDE TEKNIKOA

Gidaritza lana egingo duen talde funtzionala izango da, lana aurrera eramateaz arduratuko dena.

Partaideak:

- Hizkuntza normalizatzailea
- Euskara teknikaria
- Euskararen arduradun politikoa

Funtzioak:

- Hizkuntza irizpideak idatzi.
- Datu bilketa antolatu, eta emaitzen arabera helburuak proposatu.
- Plan estrategikoa kudeatu (diseinatu, inplementatu, jarraipena egin eta hobekuntzarako neurriak proposatu).
- Kudeaketa planak idatzi.
- Prozesua koordinatu: proposamenak Koordinazio Taldera bideratu.

### - TALDE ERAGILEA: KOORDINAZIO TALDEA

Udalean euskararen erabilera normalizatzeko jarraitu beharreko estrategiak Koordinazio Taldean adostuko dira. Talde hori arduradun tekniko zein politikoz osatuta dago, eta udal zerbitzu guztien ordezkapena du.

Partaideak:

- Alkatea
- Idazkaria
- Ekonomia arloko teknikaria
- Udal esparruetako koordinatzaileak:
  - Antolakuntza taldeko 1
  - Herritartasun taldeko 1
  - Lurraldetasun taldeko 1

Funtzioak:

- Hizkuntza irizpideak adostu.
- Udalaren diagnostikoa kontrastatu eta helburuak adostu.
- Plan estrategikoa eta kudeaketa planak adostu.
- Planaren eta hizkuntza irizpideen jarraipena egin.

Bi talde horien bidez jarraipen sistematikoa egingo zaie bai plan estrategikoari, bai hizkuntza-irizpide hauei, eta ikusitako emaitzen arabera helburu berriak ezarri, planteamendua aldatu, edo mekanismoak egokituko dira. Etengabeko hobekuntza lortzera bideratuta dago, beraz, jarraipen sistematikoa.



### **1.0.2. Lidergoa**

Eskoriatzako Udaleko arduradun politikoek euren sailtako hizkuntza-politikaren gidaritza hartu behar dute, eta zerbitziburuekin batera, hizkuntzen kudeaketa gauzatzeaz eta lankideen artean zabaltzeaz arduratuko dira.

Horretarako:

- Agintaldi bakoitzaren hasieran, udal batzorde eta barne antolakuntzako lan-bileretarako hizkuntza irizpideak adostuko dituzte.
- Udalaren ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakutsiko dute.
- Lidergoa agertuko dute hizkuntzen kudeaketari buruz hartutako erabakietan.
- Udalak euskararekiko duen ikuspegia eta helburuak ezagutu eta aintzat hartuko dituzte.
- Euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan inplikatuko dituzte eta sustapen-lana egingo dute.
- Plan estrategikoan zehaztutako helburuak lortzeko behar besteko tresnak eta baliabideak jarriko dituzte.
- Udalaren hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egingo dute.
- Plan estrategikoan zehaztutakoa bete ezean, neurri zuzentzaileak martxan jarriko dituzte.

### **1.0.3. Langileak**

Langileei informazioa emango zaie onartutako plan estrategikoari eta hizkuntza-irizpideei buruz, uneoro argi izan dezaten zein den Udalaren bisioa eta estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean; eta noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duten beren lan-jardunean.

Eskoriatzako Udalean langile berri bat lanean hasten den bakoitzean harrera linguistikoa (“Ongi etorri karpeta”) egingo zaio. Hona hemen helburu nagusiak:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea, euskara lan-hizkuntza gisa indartuz.
- Langile berriek ezarritako hizkuntza-irizpideen arabera jardutea lanean.
- Lankideekiko eta arduradunekiko komunikazioak euskaraz izatea, baldintzek ahalbidetzen duten guztietan.
- Langileen jarduera euskararen erabilera normalizatzeko ere baliagarria izatea.

### **1.0.4. Hizkuntza-gaitasuna eta derrigortasun-datak**

Eskoriatzako Udalak hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak berrikusiko ditu plangintzaldi bakoitzaren hasieran, ondorengo helburuarekin:

1. Hizkuntza-eskakizunak modu egokian esleitu direla ziurtatzea.
2. Derrigortasun-datak normalizazioa arautzen duen Dekretuan jasotako lehentasunen arabera jarrita daudela bermatzea (jendaurreko lanpostuak, zeharkakoak, harreman-sarea...).
3. Euskararen normalizazioan izandako lorpenak egonkortzea eta arduradun nahiz langileek egindako ahaleginari ahalik eta etekinik handiena ateratzea.



Derrigortasun datei dagokienez, Eskoriatzako Udalak ondorengo irizpideen arabera jokatu du lanpostuak sortzerakoan eta betetzerakoan:

- Jendaurreko, gizarte izaerako eta izaera orokorreko lanpostu guztiei ezarriko zaie euskara jakiteko derrigortasuna; eta lanpostu horiek betetzerakoan, hautaketa probak bukatzen direnerako HE egiaztatuta izatea eskatuko da.
- Izaera bereziko lanpostuen kasuan (eskulangileak), lanpostuaren eginkizunen, harreman sarearen eta udalaren momentuko egoeraren arabera erabakiko da derrigortasunik jarri ala ez, eta noizko.
- Lanpostu zerrendakoak ez diren bestelako langileak hartzerakoan ere (Lanbidekoak, bekadunak, praktiketakoak...), bete beharreko lanaren izaeraren arabera, derrigorrezkoa izango da HE egiaztatuta izatea, eta ez da hartuko dagokion euskara maila frogatzen ez duen pertsonarik.

Udal arduradun politikoez euskara lan-hizkuntza gisa sustatuko dute euren sailetan, eta langileek bezala, euskaraz lan egingo dute, ahal den neurrian eta beraien hizkuntza gaitasunaren arabera. Horretarako, guztien esku jarriko dira euskaraz lan egin ahal izateko beharrezko tresna eta baliabideak.

Udal langileen kasuan, irizpide orokor moduan, 3.HE edo hortik gorako maila dutenek euskaraz sortuko dituzte euren idatziak, beti ere dokumentuaren zailtasuna kontuan izanda. Euskara maila baxuagoa izan arren, euskara derrigorrezkoa duten lanpostuetan aritzen diren langileek, berriz, euskaraz zein gaztelaniaz erantzungo diote lanari, beti ere egin beharreko lanaren ezaugarrien arabera.

### **1.0.5. Hizkuntza-klausulak**

#### **Kontratu publikoak**

Eskoriatzako Udalak, kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko ditu egiten dituen kontratuetan, batetik, herritarrei bermatzeko udalari exijitzen zaizkion hizkuntza-baldintza berberetan jasoko duela kontratu bidezko jarduera edo zerbitzua eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren araubidea betetzeko.

Beraz, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko ditu administrazio-klausula partikularren agirietan, eta bermatuko du kontratuaren xedeak betetzen duela bere izaerarengatik eta zerbitzuaren titularraren erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.

Hizkuntza bien ofizialtasunari lotutako eskakizunak kontratu bakoitzaren betearazpen-baldintzei lotuta egongo dira, eta horiek zehaztean, honako printzipio hauek hartuko dira oinarritzat:

- a) Proporzionaltasun-printzipioa bermatuko da, kasu bakoitzaren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Kontratuaren bidez bete behar diren eginkizunei lotuta egongo dira.
- c) Enpresak bere baliabideen edo besteren baliabideen bitartez egiaztatu ahalko ditu.

Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

- a) Hizkuntza jardunari dagokionez, enpresa esleipendunak Eskoriatzako Udalaren hizkuntza-araudia bete beharko du zerbitzua ematerakoan. Zehazki, hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu herritarrekin harreman zuzena izatea eskatzen duten lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan jasoko da eta enpresak langile horiek dauzkala egiaztatu beharko du. Horretarako, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileri





eskatuko zaio identifikatu ditzala kontratua aurrera eramateko beharrezkoak diren lanpostuetan jardungo duten langileak. Langileok zer hizkuntza-maila daukaten aipatu beharko du, eta, hala badagokio, maila hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu.

- b) Zerbitzua ematen duenean, kontratista saiatuko da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Halaber, zerbitzuaren erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzaren arabera, euskaraz edo ele bietan idatziko ditu enpresa kontratistak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta bestelako idatziak.

Gainera, herritarrekiko harremana eskatzen duten kontratuetan, aztertu egingo da, kasuz kasu, puntuazio-portzentaje bat esleitzea, baldintza-agirietan eskatutako hizkuntza-neurriak hobetuko dituen eskaintza aurkezteagatik.

Eskoriatzako Udalak erabaki ahalko du hirugarrenei eskatzen dizkien azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak euskaraz, behintzat, idatzita egotea; eta eskakizun hori kontratuaren baldintza-agirietan jasoko da.

Kontratua gauzatzeko baldintzetan, Udalaren eta esleipendunaren arteko harremanetan erabiliko den hizkuntzari buruzko alderdiak ere sartu ahal izango dira.

Administrazio-klausula partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari (alkateari edo osoko bilkurari) dagokio, hark izendatutako kontratuaren arduradunaren figuraren bitartez. Hizkuntza-baldintzak urratzen badira, kontratua ez betetzeagatik araudiak dioena aplikatuko da.

Kontratuaren arduradunak (dagokion arloko teknikaria izango denak) gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan egingo du hizkuntza-klausulen betetze-mailaren jarraipena ere, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak proposatu diezazkion kontratazio arduradunari.

### **Dirulaguntzak**

Eskoriatzako Udalak euskara sustatzeko irizpideak ezarriko ditu bai **deialdi bidezko dirulaguntzetan**, bai **hitzarmen bidezkoetan**, betiere honako printzipio hauek errespetatuz:

- a) Proporzionaltasun-printzipioari jarraituko diote, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzaileen arabera.
- b) Diruz lagundutako jardueretarako izango dira.
- c) Onuradunak hizkuntza-irizpideak bermatu ahal izango ditu, bai bere bitartekoak erabiliz, bai besteren baliabideak erabiliz.

Dirulaguntzaren xede den jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, euskararen erabilera normalizatua bermatu beharko da, gaztelaniaren erabilera alde batera utzi gabe. Hau da, pertsona edo erakunde onuradunek bermatu egingo dute diruz lagundutako ekintza edo jardueretan parte hartzen duten pertsonak euskaraz hitz egin ahal izatea. Halaber, diruz lagundutako jardueraren esparruan egiten diren komunikazioak edo argitalpenak euskaraz egingo dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz, lehentasuna euskarari emanda. Paisaia akustikoa ere zainduko da, eta diruz lagundutako jarduera dela-eta girotzeko musikaririk jarritz gero, euskarazko musikaren presentzia bermatu beharko da.



Gainera, dirulaguntza oinarrietan, laguntzen zenbatekoa finkatzeko irizpideetan, euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko dira, hizkuntzen erabilera diruz lagunduko den jarduerarako alderdi esanguratsua denean.

Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutako hizkuntza betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizial biak zuzentasunez erabiltzen direla zaintzeko. Hori dela eta, onuradunek dirulaguntza kudeatzeko eskumena duen organoari egiaztatu beharko diote, batetik, jardueraren zabalkundea egiteko euskarriak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan daudela, eta bestetik, hizkuntza ofizialak nola kudeatu diren.

### **Udal baimenak**

Jaietan **barrakak edo atrakzioak** jarri ahal izateko, derrigorrezkoa izango da barraka, atrakzio edo salmenta-postuen errotulazio osoa euskaraz edo ele bietan egotea. Gainera, jartzen den musikaren %75 euskaraz izan beharko da.

**Obra lizentziak eta jarduerak ezartzeko lizentziak** ematerakoan, baldintza moduan eskatuko da ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea, hau da, obra edo jarduera dela-eta errotulu, seinale, kartel edo antzekorik jarritz gero, mezua euskaraz ere egotea.

**Udal lokalen lagapenak:** euskararen normalizaziorako neurriak hartzeko konpromisoa eskatuko zaie elkarteei, bai jarduerari buruzko informazio idatzia ematerakoan (kartelak, oharra...) bai ahozkoan (jarduera bera eta ekintza publikoak). Lagapen hitzarmenetan jasoko dira konpromiso horiek.

**Udal instalazioak** (kiroldegia, Kultur Etxea, Zaldibar.....) **erabiltzeko baimena** ematerakoan, dagokion jardueraren publizitate edo propaganda (ahozkoa zein idatzizkoa), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egitea eskatuko da, lehentasuna euskarari emanda.



## 2. ardatza: Erabilera

### 2.1. Zerbitzu-hizkuntza

#### 2.1.1. Irudia

##### Irudi korporatiboa

Eskoriatzako Udalaren irudi korporatiboa osatzen duten elementu guztiak euskara hutsean egongo dira

##### Udalaren inprimakiak eta komunikazio idatziak

Eskoriatzako Udalaren inprimakiak eta bestelako komunikazio idatziak euskara hutsean idatziko dira horretarako aukera dagoen guztietan, eta irizpide orokor moduan, Udalean ez da sinatuko erdara hutsean idatzitako kanporako idatzirik.

Edonola ere, ele bitan idatziz gero, **euskarari** emango zaio beti **lehentasuna**. Horretarako:

- a) Lehenengo euskarazko testua idatziko da, eta jarraian, baina **beste orri batean** (edo batzuetan) gaztelerazkoa. QRa, zigilua eta sinadura euskarazko testuari bakarrik jarriko zaizkio.
- b) Euskaraz idatzitako testua eta gaztelaniazkoa **orrialde berean** jarri behar izanez gero, euskarazkoa goian idatziko da eta erdarazkoa azpian eta txikiago. (Gomendioa: 2 punturen aldea letra tamainan). Zigilu eta sinadura bakarra jarriko dira, orriaren bukaeran.
- c) Bi testuak orri berean eta **zutabetan** idatzi behar badira, jarri beti euskarazkoa ezkerretara eta gaztelaniazkoa eskuman. Zigilu, data eta sinadura bakarra, euskaraz.
- d) **Inprimakien** kasuan, euskarazko testua nabarmentzeko, letraren tamaina, lodiera eta kokapenarekin jokatu dugu: euskarazkoa jarriko da lehenengo, letra lodiz eta gaztelerazkoa baino handiago.

##### Errotulazioa (finkoa eta behin-behinekoa)

Eskoriatzako udal egoitzetako barneko eta kanpoko errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak) euskara hutsez jarriko dira honako kasu hauetan:

- a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- b) Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.

Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusiz gero, hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

Berdin jokatu da gainerako udal ondasunetako inskripzio eta errotuluekin ere (ibilgailuak, zaborrontziak, informazio-seinaleak,...)



### Ikus-entzunezkoak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, bozgorailuz eta antzeko bitartekoez zabaldutakoak) lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz emango dira.

Komunikazio horiek euskaraz bakarrik egin ahal izango dira baliabideek (ikus-entzunezkoen kasuan, azpigituluak, adibidez) edo hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

### Paisaia akustikoa

Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, euskarazko musikaren presentzia bermatu beharko da udal instalazioetako megafonia sisteman (kiroldegian, plazan eta kalean jartzen den girozko musikan...).

### Kartelak

Irizpide orokor moduan, euskaraz izango diren ekintzen kartelak euskara hutsean aterako dira, eta baita ume eta gazteei zuzendutako kartelak ere.

Gazteleraz gauzatuko diren ekintzen karteletan:

- Izenburua: gazteleraz idatziko da.
- Xehetasunak: ele bietan jarriko dira, betiere euskarari lehentasuna emanda.

### Eskoriatzako agenda-panelak eta kultur gida

Komunikazio hizkuntza nagusia euskara izango da. Hala ere, iragarritako jarduerak gazteleraz direnean, horien izenburua gazteleraz mantenduko da, eta jarduerari buruzko bestelako xehetasunak ere gazteleraz jarriko dira.

Xehetasun horietan, lekua, adina, ordua, iraupena eta antzerakoak euskaraz bakarrik idatziko dira, erabilera errazekoak eta ulermen maila zabalekoak direla iritzirik.

Hizkuntza gabeko jardueretan irizpidea zehaztea zaila da, baina irizpide orokor gisa mantenduko da informazioa gazteleraz bakarrik ez ematea.

### Argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea

Oro har, Eskoriatzako Udalaren **argitalpenak** (egitarauak, gidak, esku-orriak, liburuak, aldizkariak, ...) **iragarki** ofizialak eta **publizitate**-ekintzak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, beti ere euskarari lehentasuna emanda. Hala ere, euskaraz bakarrik egin ahaliko dira, euskararen sustapena helburu denean, edo/eta hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Iragarki eta publizitate-ekintzen kasuan, euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan eta ele bietan gaztelaniazkoetan.

Publizitate-kanpainarik kontratatuz gero, bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloaren itzulpen hutsa. Kontratatorako baldintza pleguetan baldintza hori berariaz jasoko da.

### Prentsa oharrak

Prentsa-oharrak gutxienez euskaraz bidaliko dira hedabideetara. Ele bietan idatziz gero, euskarazko edukia gaztelaniazkoaren aurretik jarriko da.



## Webguneak eta sare sozialak

**Webgune instituzionala:** Eskoriatzako Udaleko webguneak euskarazko zein gaztelaniazko atalak izango ditu, biak ere eduki berarekin, eta eduki berriak jartzeko garaian, aldi berean jarriko dira euskarazko zein gaztelaniazko bertsioak.

Hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da, eta ikusgai egongo da edukiak gaztelaniaz eskuratzeko esteka.

Webgune honetako egoitza elektronikoko izapideak ere euskaraz nahiz gaztelaniaz egin ahal izango dira.

Eskoriatzako Udaleko webgune eta helbide elektronikoen .eus domeinua izango dute.

**Eskoriatzakoagenda.eus webgunea:** webgune honek duen egitura kontuan izanik, honako irizpide hauek beteko dira:

- Komunikazio hizkuntza nagusia euskara izango da.
- Hala ere, iragarritako jarduerak gazteleraz direnean, horien izenburua gazteleraz mantenduko da, eta jarduerari buruzko bestelako xehetasunak ere gazteleraz jarriko dira.
- Xehetasun horietan, lekua, adina, ordua, iraupena eta antzerakoak euskaraz bakarrik idatziko dira, erabilera errazekoak eta ulermen maila zabalekoak direla iritzirik.
- Hizkuntza gabeko jardueretan irizpidea zehaztea zaila da, baina irizpide orokor gisa mantenduko da informazioa gazteleraz bakarrik ez ematea.

**Sare sozialak:** Udalak kontu bat irekita duen sare sozialetan (Facebook, Instagram,...) publikatzen dituen mezuak euskara hutsean edo ele bietan egongo dira. Sare sozial horietako erabiltzaileen batez besteko adina kontuan izanda, Instagramen euskara hutsezko erabilera izango da nagusi, eta Facebooken, ele bietakoa.

## Mugikorretarako APPa

Eskoriatzako Udalak mugikorretarako duen aplikazioa (kexa eta iradokizunetarako) bi hizkuntza ofizialetan egongo da, herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten.

APP horren bidez jasotako mezuei euskaraz edo ele bietan erantzun zaien, Udalaren Hizkuntza Erroldan jartzen duenaren arabera. Interesduna erroldan agertzen ez bada, euskara hutsean erantzun zaien mezua euskaraz idatzi badu, eta ele bietan, gazteleraz egin badu.

## Jendaurreko ekitaldiak

Eskoriatzako Udalaren ekitaldi publikoetan (mahai-inguru, parte-hartze prozesu, omenaldi eta abarretan), udalaren izenean parte hartzen duten langile nahiz zinegotziak euskaraz arituko dira, edo euskarari lehentasuna emanez. Horregatik, hain zuzen ere, ekitaldian parte hartuko duen kargua edo langilea elebiduna izan dadin zaindu beharko da.

Dena dela, euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da, ekitaldiaren izaeraren eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarrien arabera.

Oro har, ekitaldien hartzaileak euskaldunak direnean edo euren jarduerak euskaraz gauzatzen dela jakina den kasuetan, ekitaldi horiek euskaraz egingo dira. Beste guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarari lehentasuna emanez, eta hori ezinezkoa denean, euskararen gutxieneko erabilera bermatuz.

Paperezko euskarrietan egiten diren komunikazioak (gonbidapenak, izena emateko orriak, programak, gaitzerrendak, aurkezpenak...) euskaraz edo ele bietan egongo dira, eta azken horietan lehentasuna euskarari emango zaio.



Hitzaldi eta ponentzietan erabiltzen den hizkuntza entzuleen hizkuntza-errealitatearen eta hizlarien hizkuntza-gaitasunaren araberakoa izango da, eta, beraz, bien arteko oreka bilatu beharko da beti. Euskaraz egiten direnen kasuan, jardueraren izaerak hala eskatzen duenean, aldibereko itzulpena eskainiko da.

Aurkezle edo moderatzaileak euskaraz edo ele bietan aurkeztuko ditu hizlariak, eta euskarari lehentasuna emango dio.

Ekitaldietan, zerbaiti buruzko gogoetak edo ekarpenak egiteko lantaldeak sortu behar badira, erakunde antolatzaileak sustatu egingo du euskal hiztunek euskaraz parte hartzeko aukera izatea.

Ekitaldia kanpoko enpresa batek antolatu behar duenean, kontrataziorako baldintza-pleguetan aurretik aipatutako irizpide horiek jasoko dira. Eta kontratazioa egiterakoan, bertaratutako jendearekin harreman zuzena duten langileek (aretokoak, harrerakoak eta zerbitzuetakoak) beren lana euskaraz ere egiteko gaitasuna dutela bermatuko da.

### Prentsaurrekoak

Prensaurrekoak euskaraz egingo dira orohar. Dena delakoagatik gaztelaniaz ere egitea erabakiko balitz, euskarazkoa egingo da lehendabizi.

Prensaurrekoetan banatzen den dokumentazioa euskaraz edo bi hizkuntzetan egongo da.

## **2.1.2. Herritarrekiko harremanak**

### Herritarrekiko harremana, ahoz

Herritarrari zerbitzua ematen zaionean (telefonoz zein aurrez aurre), euskarazko arreta bermatuko da. Horretarako, Eskoriatzako Udaleko langileek euskaraz egingo dute lehen hitza, eta ondoren, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko dute, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan eskubidea bermatuz.

Langileek ez diote inoiz eskatuko herritarrari hizkuntza batean ala bestean jarduteko. Aitzitik, langileak zerbitzua herritarrak hautatutako hizkuntzan bideratuko du beti.

Udal langileen hizkuntza-erabilera garrantzitsua da herritarrentzat, Udalaren beraren funtzionamenduaren isla baita. Langileen arteko komunikazioetan euskara erabiltzeak prestigioa ematen dio hizkuntzari. Ondorioz, Eskoriatzako Udalak langileen arteko euskarazko komunikazioa sustatuko du, bereziki jendaurreko lanpostuetan dihardutenen artean.

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

### Herritarrekiko harremana, idatziz

**Herritarrei komunikazio pertsonalizatuak** bidali behar zaizkienean, Eskoriatzako Udalak duen Hizkuntza Errolda kontsultatuko da, eta hor jasotako hizkuntza hautuaren arabera, euskara hutsean edo ele bietan idatziko dira.

Errolda horretan hizkuntza daturik aurkitu ezean, honela jokatu da:

- eskaera euskaraz idatzi duenari euskara hutsean erantzungo zaio
- eskaera gaztelaniaz edo ele bietan egin duenari, ele bietan
- eskaera baten erantzuna ez bada, ele bietan idatziko da.

**Herritarrei orokorrean, izenik gabe, zuzendutako dokumentazioa** ele bitan idatziko da (bandoak, gutunak, komunikazio orokorrak, dirulaguntza deialdiak, baldintza pleguak, iragarki taulako informazioa...); baina, euskarazko testuari lehentasuna emanez, arau hauen 2.1.1 atalean adierazitakoaren arabera.



**Egoitza elektronikoa bidezko izapideei** dagokienez (eskaerak, izen-emateak, kexak, dirulaguntzak...), herritarrak nahi duen hizkuntza ofiziala erabiltzeko aukera izatea bermatuko da. Horrenbestez, eskaintzen diren dokumentu estandarizatuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.

Kasu guztietan, kontuan hartuko dira hartzaileen ezaugarri linguistikoak, eta horien arabera moldatuko dira hizkera, estiloa eta formatua, ahal denean. Helburua herritarrekin komunikatzea da; hori dela-eta, komunikazio ulergarriak zabaldu behar dira.

### **Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak**

Udalak herritarrentzat antolatzen dituen ekitaldi eta ikastaroak (hitzaldiak, mahai-inguruak, aurkezpenak, ikastaroak, tailerrak, bisita-gidatuak, erakusketak eta abar) aukera dagoen guztietan euskaraz izan daitezkeen neurriak hartuko dira: aldibereko itzulpena eskaini euskaraz ez dakitenei, hizkuntzaren araberrako talde berezituak sortu... Edonola ere, irizpide orokor moduan eta salbuespenak salbuespen, 16 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutako ekitaldi guztiak euskaraz izango dira.

Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak, izen-emate orriak, balorazio orriak nahiz bestelakoak euskaraz edo ele bietan egongo dira, hartzaileen ezaugarrien arabera.

## **2.2. Lan-hizkuntza**

### **2.2.1. Barne harremanak**

#### **Ahozko barne komunikazioak**

Udal barruko harremanetan, euskara lan-hizkuntza izateko bideak urratuko dira. Horrela, langileen arteko zein langile eta zinegotzien arteko ahozko harremanak, eta eguneroko zereginek dakartzaten ahozko jardunak (lan-bilerak, batzordeak, ...) euskaraz egingo dira, partaide guztiek ulertzen dutela bermatuta dagoen guztietan. Udal langile guztiak batzen diren bilkuretan, berriz, aukera dagoen guztietan, aldibereko itzulpena eskainiko zaie euskara ulertzen ez duten langileei.

Gainera, langileen hizkuntza-erabilera Udalaren beraren funtzionamenduaren isla dela kontuan izanik, eta udal langileek euren artean euskara erabiltzeak hizkuntzari prestigioa ematen diola kontuan hartuta, Eskoriatzako Udalak euskarazko komunikazioa sustatuko du langileen arteko harreman informaletan ere.

#### **Idatzizko barne komunikazioak**

**Langileen arteko** idatzizko lan-harreman komunikatibo errazak (posta elektronikoak, WhatsAppak, ...) euskaraz idatziko dira.

**Udal barruko dokumentuak** (ebazpenak, bilera-deiak, aktak, memoriak, txostenak, proposamenak, aurrekontuak, ...) euskara hutsean sortuko dira ahal den guztietan.

Irizpide orokorra izango da barruko idatzi horiek hizkuntza bakarrean sortzea, eta ezinbestekoa ez bada, ez itzultzea (ezta gazteleraz idatzita badaude ere).

Irizpide hauetako 1.0.4 atalean jasotakoa betez, 3.HE edo hortik gorako maila duten langileek euskaraz sortuko dituzte euren idatziak, beti ere dokumentuaren zailtasuna kontuan izanda.

Horrenbestez, udal barruko **prozedura administratiboak** euskaraz izapidetzera joko da, izan ofizioz hasitako prozedurak, izan eskaera bati erantzunez sortutakoak, eta edozein delarik ere eskabidearen hizkuntza, beti ere, interesdunari erantzuna berak aukeratutako hizkuntzan bidaltzearen kaltetan gabe.



### Dokumentuen sarreren eta irteeren Erregistro Orokorra

Sarrerak eta irteerak euskaraz inskribatuko dira Eskoriatzako Udalaren erregistro administratiboan. Gainera, erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan eremu bat egongo da sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen adieraziko duena.

### Barruko hizkuntza-paisaia

Lan-inguruneari lotutako hizkuntza-paisaiako elementuek euskararen presentzia eta hizkuntza-zuzentasun egokia bermatu beharko dute, besteak beste, honako kasu hauetan:

- Errotulazio txikia: karpeten bizkarrak, apaletako errotuluak, artxiboak, etab.
- Errotulazio aldakorra eta informala (behin-behinekoa).
- Egitasmo jakinen izenak.
- Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak.
- Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa.
- Kafe- eta janari-makinen errotulazioa, fotokopiagailuak, eta abar.

### Informaziorako edota komunikaziorako tresnak

Barrura begirako komunikazio orokorrak (zirkularrak, intraneta, ohar eta iragarki taulak, etab.) euskaraz egingo dira.

Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan ere (Munigex, fitxatzeko aplikazioa, inprimakiak, etab.), izapide horiek gutxienez euskaraz egiteko modua egongo da.

## **2.2.2. Kanpo harremanak**

### Administrazio publikoekiko harremanak

**Ahozko komunikazioei** dagokienez, udal langileek EAEko eta euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetan kokatutako beste administrazio publikoekiko harremanetan lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak euskaraz baldin badaki, euskaraz jarraituko da elkarriketa.

**Idatzizko komunikazioei** dagokienez, EAEn eta euskara hizkuntza ofiziala den lurraldeetan kokatutako beste administrazio publikoekiko zuzendutako dokumentuak euskara hutsean bidaliko dira.

Euskaraz egindako komunikazio horiek balio juridiko osoa dute, eta erakunde hartzaileak ezingo dio eskatu erakunde igorleari jatorrizko dokumentuaren itzulpena. Itzultzekotan, erakunde hartzailearen arduraren izango da itzulpen hori.

EAEn kokatutako Estatuko Administrazio ezberdinekiko (Zibila, Militarra eta Justizia) komunikazioetan ere hizkuntza-irizpide berak jarraituko dira.

**Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko administrazioei** bidalitako komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, gure hizkuntza propioaren presentzia agerian uzteko.





### **Entitate pribatuekiko harremanak**

Erakunde pribatuekiko (pertsone juridikoak, finantza entitateak, ikastetxeak, hornitzaileak...) komunikazioetan euskararen erabilera sustatuko da.

Ahozko harremanetan, Eskoriatzako Udaleko langileek lehen hitza euskaraz egingo dute, eta euskaraz jarraituko dute solaskidearen hizkuntza-gaitasuna bermatuta badago.

Kanpo-bileretan ere euskararen erabilera sustatuko da, eta bilera-deiak eta aktak euskaraz idatziko dira aukera dagoen guztietan. Hala ez bada, ele bietan egingo dira.

Irizpide bera jarraituko da gainerako idatzizko harremanetan ere.

### **2.2.3. Prestakuntza**

Eskoriatzako Udalak laguntza emango die euskaraz lan egingo duten langileei behar bezala treba daitezen: hizkuntza prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa zerbitzua, dokumentu estandarrak, zerrenda terminologikoak eta abar. Kasu guztietan ziurtatu behar da badagoela lotura langileak landu beharreko komunikazioen eta horretarako antolatutako ikastaro espezifikoaren artean.

#### **Prestakuntza orokorra**

Euskararen erabileraren normalizazioari begira, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra da prestakuntza orokorra euskaraz jasotzea. Horrela, bada, Eskoriatzako Udalak antolatutako ikastaroak euskaraz egingo dira ahal den guztietan.

Ikastaroan parte hartuko duten langileen hizkuntza mailaren arabera erabakiko da zein ikastaro eskaini euskaraz eta zein ez. Dena dela, irizpide orokor moduan C1 edo C2 gaitasuna egiaztatuta duten langileek euskaraz jasoko dituzte prestakuntza ikastaroak, eta ikastaroaren ezaugarrien arabera, baita B1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dutenek ere.

### **2.2.4. Baliabide informatikoak**

Berriaz Eskoriatzako Udalean erabiltzeko software berriren bat garatuko balitz, ele bietan egiteko eskatuko zaio hornitzaileari, baina kontuan izateko softwareak euskaraz erabiltzeko modukoa izan beharko duela, eta ez gaztelaniazko bertsioaren egokitzapen hutsa.

Programa, aplikazio, datu-base, tresna edo sistema eragileen euskarazko bertsioa instalatuko zaie B2 eta handik gorako euskara maila egiaztatuta duten langileei, euskarazko bertsioa eskuragarri dagoen guztietan.

Era berean, sustatu egingo da langileek euskarazko bertsioak erabiltzea, eta horiei eustea.



### 2.2.5. Sortze-hizkuntza

Oro har, dokumentuen sortze-hizkuntza euskara izatea bultzatuko da.

Zentzu horretan, kontuan izango da C1 edo hortik gorako maila duten langileek euskaraz sortu behar dituztela euren idatziak (beti ere dokumentuaren zailtasuna kontuan izanda). Ikusi 1.0.4 irizpidea.

#### Itzulpen-irizpideak

Eskoriatzako Udalaren barne jardueretan, itzulpen zerbitzua modu arrazionalizatuan erabiliko da, eta ez da sistematikoki erabiliko, idatzi bat bi hizkuntza ofizialetan behar den bakoitzean.

Horrela bada, langileen hizkuntza gaitasuna baliatu eta itzulpenen kopurua ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin, honako hauek izango dira kontuan:

- Ahal den guztietan udal barruko dokumentazioa (ebazpenak, bilera-deiak, bileretako aktak, memoriak, txostenak, proposamenak, aurrekontuak, ...) euskaraz sortuko dela, eta jakinarazi behar ez bada, ez dela itzuliko (ez euskarara ez gaztelaniara).
- Oro har, udal batzordeetako eta barne antolakuntzako lan-bileretarako aktak euskaraz sortuko direla, eta ez direla itzuliko.
- EAEko administrazio publikoetarako idatziak, euskara hutsean bidaliko direla.
- Herritarrei edo entitateei bidali beharreko idatziak euskara hutsean egingo ditugula honako kasu hauetan:
  - eurek hala eskatu dutenean
  - eskaera euskaraz idatzita aurkeztu dutenean
  - hartzaileen ezaugarriek aukera hori ematen dutenean (ikastetxe, elkarte, banketxe, ...)

Eta ele bietara idatzi behar diren idatziei dagokienez, honela jokatu da:

- Dokumentuen estandarizazioa bultzatuko da: langileen eskura jarriko dira, txantilo gisa, eta ez da itzultzera bidaliko dagoeneko txantiloia sortua duen idatzirik.
- Testu berdina (edo oso antzerakoa) ez da bi aldiz itzultzera bidaliko, nahiz eta prozesuan zehar testuak aldaketak izan.

Lan hori errazte aldera, itzultzaile neuronalen laguntza izango dute langile guztiek.

Itzultzaile neuronalek egindako itzulpenen kalitate-maila handia da, baina muga batzuk dituzte; horregatik, funtsezkoa da testuak berrikustea eta, beharrezkoa denean, zuzenketa egitea. Hori horrela, Euskara zerbitzuak zuzenketa zerbitzua eskainiko du beti.



## **4. ERANSKINA**

**KUDEAKETA PLANA  
2024-2025**

# 1.ardatza.- KUDEAKETA

## 1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<b>1.0.1.1.- Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.</b>	Planaren jarraipena egiteko <b>egitura egokia</b> antolatzea, udalaren kudeaketa orokorrean txertatua, zeharkakoa, ardurad. tekniko zeharkakoa, ardurad. politikoz osatua eta operatiboa izango dena	<ul style="list-style-type: none"> <li>Talde Eragilea osatu eta funtzionamendua adostu, planean bertan jasotakoaren arabera.</li> </ul>			Udal kide guztiak	Talde eragilea: koordinazio taldea	Talde Eragilea eratu izana.
<b>1.0.1.2.- Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.</b>	<b>a) Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua landu eta onartzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bertsio desberdinak oinarri hartuta, dokumentua landu.</li> <li>Udal kideen artean partekatu.</li> <li>Behin betiko bertsioa Plenoan onartu</li> </ul>	✓		Udal kide guztiak	Talde teknikoa Udal kide guztiak	Plenoak onartutako Hizkuntza Irizpideak
	<b>b) Kudeaketa-planak egitea, Plan estrategiko honetan oinarrituta.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024-2025 Kudeaketa-plana diseinatzea</li> </ul>			Udal kide guztiak	Talde teknikoa Koordinazio taldea	2024-2025 Kudeaketa Plana eginda eta onartuta
	<b>c) Kudeaketa planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipena egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>2024-2025 Kudeaketa-Planaren ebaluazioa egin eta 2025-2027koa diseinatu eta onartu.</li> </ul>			Udal kide guztiak	Talde teknikoa Koordinazio taldea	Ebaluazioa aurkeztuta eta hurrengo plana onartuta

## 1.0.2 arloa: LIDERGOA

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<b>1.0.2.4.- Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa- planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.</b>	<b>Udalbatzari eta arduradun teknikoei Erabilera Plana aurkeztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal agintarientzako aurkezpena antolatu.</li> <li>Arduradun teknikoei Plana aurkeztu</li> </ul>			Udal ordezkari politikoak Arduradun teknikoak	Taldea teknikoa Koordinazio taldea	Aurkezpena jaso duen kide kopurua
<b>1.0.2.5.- Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.</b>							

### 1.0.3 arloa: LANGILEAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<p><b>1.0.3.7.- Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten</b></p>	<p>Langileei diagnostikoaren emaitzen berri ematea eta Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea...</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal langileentzako aurkezpen bilerak antolatu</li> </ul>			Udal langileak	Talde teknikoa	Aurkezpenak jasotako langile kopurua
<p><b>1.0.3.8.- Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.</b></p>							

### 1.0.4. arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<p><b>1.0.4.12.- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.</b></p>	<p><b>a) Langileak euskara maila hobetzerantz animatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Langileak Euskaraldiaren 2025eko edizioan parte hartzerantz gonbidatu, bereziki, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak.</li> </ul>			Udal langileak	Euskara zerbitzua	2025eko Euskaraldian parte hartu duen langile kopurua
	<p><b>b) Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza orokorreko jarduerak euskaraz izatea, hizkuntza gaitasuna lortzeko biderik eraginkorrenetakoa hizkuntza horretan aritzea baita.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalak langileen prestakuntza orokorreko ezer antolatuz gero, euskaraz izatea</li> </ul>			Udal langileak	Koordinazio taldea eta udal antolakuntza taldeak	Antolatutako jardueretatik zenbat izan diren euskaraz
	<p><b>c) Lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak Dekretu berrira egokitzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanpostu zerrendako <b>hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak berrikustea</b>, dagozkion aldaketak proposatzea eta denak Dekretu berrira egokitzea.</li> </ul>			Udal langileak	Euskara zerbitzua	Lanpostu zerrenda eguneratua

1.0.4.13.- Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	a) Langileak euskara maila hobetzera animatzea, bereziki, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaintzea (euskara ikastaro laburrak, zuzenketa zerbitzua, ...).	– Udal langileentzako euskara ikastaro laburrak antolatu.				Udal langileak	Euskara zerbitzua	Klaseetara animatutako langile kopurua.
	b) Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza orokorreko jarduerak euskaraz izatea, hizkuntza gaitasuna lortzeko biderik eraginkorrenetakoa hizkuntza horretan aritzea baita.	– Udalak langileen prestakuntza orokorreko ezer antolatuz gero, euskaraz izatea				Udal langileak	Koordinazio taldea eta udal antolakuntza taldeak	Antolatutako jardueretatik zenbat izan diren euskaraz
	c) Lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak Dekretu berrira egokitzea.	– Lanpostu zerrendako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak berrikustea, dagozkion aldatetako proposatzea eta denak Dekretu berrira egokitzea.				Udal langileak	Euskara zerbitzua	Lanpostu zerrenda eguneratua

## 1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
1.0.6.17.- Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	a) Kontratu mota guztietan hizkuntza-klausulak modu sistematikoan txertatzea	– Udal espedienteen kudeketarako aplikazioa baliatuz, kontratu mota guztietan hizkuntza-klausulak txertatzen jarraitzea.			Kontratazio espedienteetan esku hartzen duten langileak	Euskara zerbitz. Kontratuaren ardura duten teknikariak	Hizkuntza klausulak txertatutako kontratuaren ehunekoa
		– Langile berriei hizkuntza-klausulak txertatzeko prozedura azaldu (kontr. ardurarik izan behar badute).			Langile berriak	Euskara zerbitz.	Prozedura azaldu zaion langile berri kopurua
	b) Herritarrekiko harremana eskatzen duten kontratueta, puntuazio-portzentaje bat esleitzea, baldintza-agirietan eskatutako hizkuntza-neurriak hobetzen dituzten eskaintzak aurkezten dituzten enpresei.	– Herritarrekiko harremana eskatzen duten kontratueta, aztertzea, kasu kasu, puntuazio-portzentaje bat esleitu ala ez, baldintza-agirietan eskatutako hizkuntza-neurriak hobetzen dituzten eskaintza aurkezteagatik.			Kontratazio espedienteetan esku hartzen duten langileak	Euskara zerbitz Kontratuaren ardura duten teknikariak	Balorazio irizpideetan euskararen aldeko normalizazio neurriak kontuan hartutako plegu kopurua.
1.0.6.18.- Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	Laguntzaren xede den jarduerak herritarrekiko harremana (ahoz zein idatziz) sortzen duen kasuetan, oinarri edo hitzarmeneta htza.-klaus. txertatzen direla bermatzea	– Hala dagokionean, dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatu			Dirulaguntzen hartzaileak	Euskara zerbitz. Dirulaguntzen ardura duten teknikariak	Hizkuntza klausulak txertatutako dirulaguntza eta hitzarmen kopurua.

<b>1.0.6.19.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</b>	Herritarrekin zuzeneko harremana izatea eskatzen duten kontratuen jarraipen zehatza egitea.	– Urteko hizkuntza datuak eskatu herritarrekiko harreman zuzena duten esleipendunei, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatu				Enpresa esleipendunak	Euskara zerbitz. Kontratuen ardura duten teknikariak	Aztertutako kontratu kopurua
<b>1.0.6.20.- Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</b>	Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipena egitea	– Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipena egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea, eta dirulaguntzen ardura duten teknikarien bidez gauzatzea.				Dirulaguntzen ardura duten teknikariak	Euskara zerbitz. Dirulaguntzen ardura duten teknikariak	Jarraipena egin zaien dirulaguntza eta hitzarmen kopurua

## 2.ardatza.- ERABILERA

### 2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA

#### 2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<b>2.1.2.25.- Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen</b>	Langileak proaktiboak izatea herritarrek euskaraz egin dezaten.	– Langileei irizpidea gogorarazi eta %100ean ez betetzearen arrazoiak identifikatu.			Udal langileak	Euskara zerbitz.	Irizpidea gogorarazi zaien langile kopurua eta langileen eskaintza aktiboa (lehen hitza euskaraz) %79tik gorakoa izatea hurrengo neurketan.
<b>2.1.2.26.- Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</b>							
<b>2.1.2.28.- Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak</b>	a) Idatzien sarrera/irteera erregistroko hizkuntza datuak egoki jasota izatea	– Idatzien sarrera/irteera-erregistroko hizkuntza datuak jasotzen jarraitu, udal espedienteen kudeaketarako aplikazio berria jartzen denean.			Udal langileak	Informatika zerb Euskara zerbitz. H@ZI Irteerak ematen dituzten langil.	Erregistroko sarrera eta irteeren hizkuntza datuak zuzen jasota izatea.
	b) Gazteekiko harreman idatzietan euskara hutsezko komunikazioak sustatzea.	– Aurreko urtean 18 urte bete dituzten eskoriatzarrei gutuna bidaltzea, kontraktorik adierazi ezean, udal idatziak euskaraz jasoko dituztela jakinarazteko.		✓		18 urteko herritarrak	Euskara zerbitz.

<p><b>2.1.2.29.-</b> Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei eusk. erantzuten zaie, idatziz.</p>	<p>Idatzia euskaraz aurkeztu dutenei eta idatziak euskaraz jasotzea eskatu dutenei, euskara hutsean erantzutea.</p>	<p>- Irizpidea birgogoraztea langileei.</p>		<p>Udal langileak</p>	<p>Euskara zerbitz.</p>	<p>Euskara hutsez bidalitako irteerak %88 baino gehiago izatea.</p>
--	---	---	--	-----------------------	-------------------------	---

## 2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA

### 2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<p><b>2.2.1.32.-</b> Lan-bilerak euskaraz egiten dira.</p>	<p><b>a) Udal langile guztiak</b> elkartzen diren <b>bilerak</b> euskaraz izatea (euskara ulertzen ez duten 2 langile daude brigadan)</p>	<p>- Langile guztiak elkartzen diren bileretarako (urtean gutxi izaten dira) interpretaritzta eta itzulpen sistemak ezartzeko prozedura finkatu eta gauzatu</p>			<p>Langile guztiak</p>	<p>Bileraren antolatzaileak Euskara zerbitz.</p>	<p>Euskara hutsean egindako bilera-orokor kopurua</p>
	<p><b>b) Ulermena</b> bermatuta dagoen kasuetan, <b>lan bilerak euskaraz</b> izatea.</p>	<p>- Identifikatu zein kasutan ez den horrela jokatzeko eta hala badagokio, neurriak bideratu</p>			<p>Langile guztiak</p>	<p>Euskara zerbitz. Udal langile eta agintariak</p>	<p>Euskaraz egindako lan bilera kopurua</p>

### 2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<p><b>2.2.2.39.-</b> Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</p> <p><b>2.2.2.40.-</b> Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.</p>	<p>Sektore publikoko erakundeekin harremana euskara hutsean izatea, ahoz zein idatziz.</p>	<p>- Irizpidea birgogoraztea langileei.</p>			<p>Udal langileak</p>	<p>Euskara zerbitz.</p>	<p>Langileentzako aurkezpen saioa egin izana.</p>



## 2.2.4 arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<b>2.2.4.46.- Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak</b>	a) Baliabide informatikoen eta horien hizkuntzaren <b>inbentarioa</b> egin eta eguneratuta mantentzea.	- Bi urtetik behin egitea jarraipena.			Udal langileak	Informatika zerb Euskara zerbitz.	Inbentarioaren jarraipen txostena
	b) Udal barruko erabilerako aplikazioak euskaraz instalatuta egotea	- Ordenagailu berrietan aplikazioak euskaraz instalatu; eta baita ordenagailu zaharretan ere, aukera dagoen guztietan .			Udal langileak	Informatika zerb	Euskaraz instalatutako aplikazioen %
<b>2.2.4.47.- Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak</b>	Langileek euskaraz erabiltzea baliabide informatikoak	- Langileei irizpidea gogorazi.			Udal langileak	Euskara zerbitz.	Langileei aurkezpen saioa egin izana.
		- Baliabide informatikoen <b>inbentarioan</b> erabilera datuak ere jaso.			Udal langileak	Informatika zerb	lbentarioan erabilera datuak ere jasotzea

## 2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA

Planeko ADIERAZLEA	HELBURUA	EKINTZA	2024	2025	HARTZAILEAK	ARDURADUNAK	EKINTZAREN ADIERAZLEA
<b>2.2.5.48.- Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak</b>	Langileek itzulpen zerbitzua modu arrazionalizatuan erabiltzea	- Itzulpenen inguruko neurketa egitea (zer itzultzen den eta ze hizkuntzatarara), sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko			Udal langileak	Euskara zerbitz.	Datuak ateratzeko aukera ematen duen sistema eratu izana.